

Kontzeju

Oñatika Udol aldizkaria | 2017ko Ekaina | 273. zenbakia



www.oñati.eus



Berba Oñati



@BerbaOñati



baletina



OñatiIrati

DELIC



'PINOTXO' MUSIKALA

Ekainaren 16 eta 17an taularatuko du musikal berria
Ganbara Txiki abesbatzak



Artxibo Historiko Probintziala

Dokumentuak gordetzeko teknologia berrienekin eraikitako azpiegitura, baina gutxiegia erabiltzen dena, administrazioen interesen ondorioz

Ekainaren 9an artxibategien nazioarteko eguna ospatzen da eta aukera egokia iruditu zaigu Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintzialera hurbiltzeko. Bertako arduradun Esther Jimenok azaldu digu zein motatako dokumentuak gordetzen diren bertan, eta nolakoa den eraikina bera, Gipuzkoako dokumentu historikoak gordetzeko espreski eraikitako azpiegitura, baina gutxiegia erabiltzen dena, administrazioen interes ezberdinen ondorioz.

Espainiako Kultura Ministerioak eraiki zuen Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala 2002an, Oñatiko udalak doan lagatako lursaillean. Bestela, artxiboa Tolosara eramateko aukera egon zen mahai gainean, baina Oñatiko udalak arrazoi historikoengatik zegokion “eskubidea” defendatu zuen, eta horregatik eraiki zen bertan. Eta, hain zuzen, herrialdeko hiriburuan ez dagoen artxibo historiko probintzial bakarra da Oñatikoa estatu osoan.

Eraikinaren titulara Madrilgo kultura ministeritza da, baina kudeaketa eta lantaldea Jaurilaritzaren menpe daude

Bere momentuan, kritika ugari eragin zituen artxibo berriak herritarren artean, batez ere eraikinaren estetikak eraginda. Ildo horretan, argitu behar da, artxiboa eraikitzeko lehiaketa publikoa deitu zuela Kultura ministroak, eta izen handiko Martin-Clabo Anaïen proiektuak irabazi zuela.

Baina, gainerakoan, eta, jada 15 urte igaro badira ere, inork gutxik ezagutzen du artxibo hau, eta horregatik zabaldu nahi izan ditugu ia 5.600m² dituen



azpiegitura erraldoi honetako atak.

ERAIKINAREN EZAUGARRIAK

Eraikinari dagokionez, bi zati nagusi ditu: alde batetik, zona publikoa (bertako langileek eta ikerlariek erabiltzen dutena), eta bestetik, dokumentuen biltegi edo gordailurako gunea, eta alde bakoitzak 4 solairu ditu.

Gune publikoari dagokionez, sotoan ekipo elektrogenoa eta bestelako biltegi batzuk daude. Solairu nagusian, bisitarien

harrera gunea, gela didaktikoa, ikertzaileentzako gune zabala (48 posturekin), eta erabilera anitzeko areto handi bat dago (ekitaldi areto edo erakusketa gela bezala erabil daitekeena). Lehenengo solairuan dokumentuak zaharberritzeko laborategiak (gune hezea eta gune lehorra) eta enkuadernatzeko tailerra daude, denak ere behar bezala ekipatuta, eta bigarren solairuan langileentzako bulegoen gunea dago (8 bat langileentzako pentsatua).

Eraikinaren beste aldean, dokumentuen gordailu edo biltegiak daude, 16 guztira (15 bertikalak eta 1 horizontala, mapak, planoak eta tamaina handiko dokumentuentzako), lau solairutan banatuta. Danera, 18 kilometro apal, armairu metaliko konpaktoetan, dokumentuen kontserbaziorako ISO guztiak betetzen dituztenak.

Gainerakoan, klimatizazio eta suteen aurkako sistema eta teknologia berrienez hornituta dago eraikina; sarrera kontrola, intrusioak detektatzeko sistema, eta bideozaintzarako barne zirkuitoa ere baditu.

ARTXIBO HISTORIKO PROBINTZIALAK

Baina ikus dezagun zein den artxibo historiko probintzialen funtzioa, eta zein motatako dokumentuak gordetzen dituzten, edo gorde beharko lituzketen, Oñatiko kasua nahikoa berezia baita, ondoren ikusiko dugun moduan

“Artxibo historiko probintzietan lau motatako doku-



Ikertzaileentzako gunea, 48 posturekin



Areto nagusia



Dokumentuak zaharberritzeko laborategia (gune hezea)

5.600m²-ko azalera du eta dokumentuak gordetzeko babes sistema berrienekin hornitutako eraikina da

mentuak gordetzen dira: 100 urtetik gorako dokumentu notarialak, Hipoteka Kontularitzako agiriak (Gipuzkoan 1768-1862 artean indarrean egon zena), epaitegietako dokumentazioa, eta estatuko administrazioak Gipuzkoan sortutako dokumentazioa (Gobernu Zibila, Estatistika Institutua, Komertzioa, Lana...)”

(hurrengo orrira)

ESKANTZA 90€ BEREZIA
Guztia barne

EZKONTZETAN Etxea-Aundi
2016-2017 urteetan
Informazio gehiago,
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com

azaldu digu Jimenok.

Hala ere, 1947az geroztik (orduian hasi ziren notaritzako protokoloak transferitzen), dokumentu horiek Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatara eramán izan dira, eta bertan daude gaur egun ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zain-tzapean. Legez, dokumentu horiek artxibo probintzian egon beharko lirake, estatuaren jabetzapekoak direlako, baina, kontua da, gaur egun, oraindik, ez dela lekualdaketa egin. “Dokumentuen titulartasuna alde batera utzita, nik uste dut agiri horiek hobeto egongo lirakeela hemen, horretarako berariaz eraikitako azpiegitura delako hau” adierazi digu Jimenok. “Niri gustatuko litzaidake, diputazioak funtsa horien transferentzia egitea hona, lantaldearekin batera. Zergatik ez den egiten, ez dakit”.

ESKUMEN ALDAKETA

Bestalde, kontuan hartu behar da, 2011. urtean Jaurlaritzaren eskuetara pasa zela artxiboak kudeatzeko eskumena. Beraz, eraikinaren jabea estatua bada ere (berak ordaintzen ditu azpiegituran egiten diren obrak) artxiboaren kudeaketa eta bertako langilegoa Lakuaren menpe daude gaur egun.

Ildo horretan, gogoratu behar da, Eusko Jaurlaritzak erabaki duela berriki Bilboko artxiboan gordetzea Gipuzkoako XIX mendeko dokumentazio judiziala. “Niri ez zait egokia iruditzen, Bergara eta Azpeitiako barrutietako dokumentazioa



Esther Jimeno Huarte, artxibo historiko probintzialako arduraduna

“ Nahiko nuke Sancti Spiritus unibertsitatean dauden dokumentuak eta lantaldea hona ekarriko balitu aldundiak, horretarako espreski diseinatutako eraikina baita artxibo hau

delako eta, beraz, hemen egon beharko litzatekeelako, eta halaxe adierazi dugu, baina, hala ere, Bilbora eramatea erabaki dute” argitu digu Jimenok.

Beraz, notaritza, kontularitza eta epaitegietako dokumenturik ezean, estatuko administrazioak

Gipuzkoan sortzen duena da Oñatiko artxibo historiko probintzian jasotzen den bakarra.

FUNTSA INTERESGARRIAK

Horrez gain, beste funtsa inportante batzuk ere gordetzen dira Oñatiko artxiboan, hala nola: Donostiako Tabakalera (1887-2000) enpresaren funtsa, bertako plano, proiektu eta administrazioarekin lotutako dokumentazio guztiarekin; Donostiako Presondegiko Probintzialeko funtsa, gerra aurretik eta ondoren atxilotuta egon ziren gizon-emakumeen 15.000 inguru espedienterekin (tartean dira, adibidez, Saturraraneko emakumeen kartzelakoak); gerra osteko urteetan indarrean egon zen *Comisaría General*



EMAKUMEEN KARTZELA

Besteak beste, Saturraraneko emakumeen kartzelako espedienteak gordetzen dira Oñatiko artxibo historikoan. Lerro hauen gaineko irudian XX. mende hasieran Oñatin zueuden elkarteei buruzko liburuko orria ikus daiteke.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSOIAK, LENDAK, LUB FLUTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...






DI SEINATZAILA ETA MONTATZAILA
SERRALDEAK, KANONAK eta ASKEZ GENGU
OLAKUA 12 B 4 esk. - 20080 Oñati - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

de Abastecimiento y Transporte
delakoaren funtsa osoa; eta
Euskal Filmotekaren pelikula
guztiak.

Zigortutakoen espediente pertsonalen funtsa da, gaur egun, interes handiena pizten duena, Jimenok azaldu digunez. “Memmoria historikoaren gaiak garrantzia handia hartu du azken urteotan, eta jende ugari etortzen da beraien aitona-amonen aurrekariak aztertzerara. Aranzadi elkarteak ere gurekin elkarlanean ari da, eta azterlan sakona egin dugu Saturraranen preso egon ziren emakumeen inguruan (hauetako asko beste erkidegoetakoak). Funtsa hau ondo landuta daukagu, eta ahal dugun neurrian digitalizatzen ari gara”

Gainera, gogoratu behar da, ia hamar urtez (2004ko uholdeen ondoren) Arrasateko artxiboko dokumentazioa ere bertan egon zela, eta baita Soraluzekoa ere.

Lantaldeari dagokionez, gaur egun bi langile bakarrik ditu Oñatiko artxibo historikoak: zuzendaria eta administrari bat. “Duela urte batzuk (2006-2011 artean) aldi baterako kontratazio ugari egiten ziren (6-7 bat urtean), eta artxibo-teknikari bat ere bageneukan lantaldean, baina lanpostu hori kendu egin zuten, eta orduz geroztik ez da



18 KILOMETRO APAL GORDAILURAKO

Dokumentuak gordetzeko
16 biltegi (15 bertiakalak eta
1 horizontala) daude, lau
solairutan banatuta. Guztira, 18
kilometro apal, armairu metaliko
eta konpaktotan.

kontratazio gehiago egin. “Eskerrak ematea gustatuko litzaidake artxiboan lanean ibili ziren oñatiarrei, lan ederra egin baitzuten” dio Jimenok.

ARTXIBOA ZABALIK

Gainerakoan, artxiboa zabalik dago bertako dokumentuak kontsultatu nahi dituen edozein pertsonarentzat. Nortasun agiria besterik ez da eskatzen. “Eskatzen duguna da, aurrez deitzea, edo, hobeto, email bat

idaztea, esanez, zein dokumenturen bila dabiltzan, kontsulta egitera etortzen den egunerako prest izan dezagun. Bi pertsona bakarrik gaudenez, ondo antolatu beharra daukagu” azaldu digu Jimenok. Ekainaren 9ko artxiboen egunera begira ez dute ekitaldi berezirik antolatu, “baina gure aldetik ez litzateke arazorik egongo bisita gidatu bat antolatzeko, jendeak interesa balu” azaldu digu. ■

CANDELUKA
MEDITERRANEAR MODA

GEROZ ETA GUTXIAGO FALTA DA UDA GARAIA IRISTEKOI
Jantzi itzazu azken joerak, Candeluka jantzi dendari esker

Ramon Irizar, 2 • Tel. 943 08 81 84 • www.candeluka.com • Candeluka

JOXE RAMON AZKOITIA

Oñatik izan duen pilotari profesional bakarra

Aloña Mendiko Pilota sailak 50 urte betetzen ditu aurten, eta hori ospatzeko Pilotaren Astea burutzen ari da egunotan. Hala, kultur etxean, 'Oñatiko herria eta pilota' argazki zaharren erakusketa dago ikusgai ekainaren 3ra arte, eta larunbatean Pilota Eguna ospatuko da plazako frontoian (pilota jokuak, tailerrak, iparraldeko joko-luze erakustaldia...). Horren harira, Oñatik izan duen pilotari profesional bakarrarekin izan gara. Zubillagan eta Aloña Mendiren harrobian hazitako mutila, herriko errematatzaile onena zen Jose Ramon Azkoitia, eta bost urte egin zituen Empresas Unidas-ekin.



Bost urte eman zituen Azkoitiak profesionaletan, Empresas Unidasekin

Zubillagako mutiko gehienak bezala, auzoko pilotalekuan eman zituen lehenengo urratsak Arretxe baserrian jaiotako Jose Ramon Azkoitiak (1955). "Frontoia egitten ebitzela, baztar baten ibiltten giñan pelotan. Garai hartan Zubillagan danok egitten geben ondo pelotan: Irizar anaiak, Igarzabal, Urizar anaiak, Agiriano..." gogoratzen du Azkoitiak.

Hamasei urterekin jokatu zuen aurreneko aldiz Aloña Mendiren izenean Deba Arroko txapelketan. Eta hurrengo urtean txapela jantzi zuen, Jesus Mari Agirianorekin batera Irigoien-Zubillaga arrasatearren aurka. Txapelketako pilotari onena izendatu zuten. Hurrengo urtean azpitxapeldun izan zen, Jose Luis Barrenarekin bikote osatuz.

Juanito Osa, Pedro Zelaia eta Agirianorekin batera egiten zituen entrenamendu saioak. Aterri bazen, plazan, baina askotan Arantzazura joaten ziren. "Partidu gogorrak jokatetan gittuan, broma barik", dio Azkoitiak. "Afiziño haundixa



Goian, Jesus Mari Agiriano eta Jose Ramon Azkoitia. Deba Arroko txapelketa irabazi zuten 1972an. Behean, Azkoitia eta Javier Irizar, herriko txapelketako saria jasotzen, Pedro M^a Igartua pilota saileko presidentearen eskutik. Eskuman, Azkoitia, ezker airea jotzen. Horixe zen bere kolperik onena



Oñatin izan den errematatzaile onena izan zen Azkoitia, Pedro Zelaiarekin batera



geukan!. Goguan dakot, behin, fan giñala Arantzazura goizeko 9ttarako, betiko antzera, eta pelotalekua okupauta. Zer egingo, eta Legazpira fan giñan, eta ha be okupauta. Antzuolan pruebia egittia pentsau geben, eta ha be hartuta. Azkenian berriz be Arantzazura etorri, pelotan egin, eta etxera. Pentsau zelako afiziñua geukan!".

Zubillagan bere kasa ere egiten zituen prestaketa saioak Azkoitiak. "Mataderixa inguruan esprintak egitten nittuan, eta harri batzuk neuzkan pesak

ALOÑA MENDIKO PILOTA SAILAREN 50. URTEURRENA

PILOTA EGUNA

EKAINAK 3

10:00 Ate irekiak plazako frontoian
(Eguraldia txarra bada, Zubikoan)
12:00-13:00 (Foruen enparantzan)
-Tako tailerra
-Pilotagileak
-Hegoalde/Iparalde joko erakustaldia
18:00-21:00
-Xistera
-Emakumeen pilota partidua
-Pilota jokoak
-Pilota-pote

'OÑATI ETA PILOTA' ARGAZKI ERAKUSKETA

Ekainaren 3rarte kultur etxean (18:00-20:00)

200 bat argazkiz osatutako erakusketa ederra dago ikusgai kultur etxean. Aloña Mendiko pilota sailaren historia ez ezik, Txantxiku Txoko elkarteak gerra aurretik eta ostean antolatzen zituen txapelketa eta jaialdietako argazkiak ere badaude. Horiez gain, Iñigo Gañagaren 'Pilota herriz herri' erakusketa dago ikusgai, pilota modalitate ezberdinen ingurukoa.



egitteko. Orduan ez eguen poli-deportiborik”.

EZKER AIRE ONA ETA HANKA BIZKORRAK

Aurrelaria zen Azkoitia, eta, batez ere, erasoko jokoan nabarmentzen zen. Oñatin izan den errematatzaile onena izan omen zen. “Ezker aidiarekin ondo defenditzen nintzan, eta zulora be ondo botaten neben, kortadia txapa gainera. Hankak be onak neuzkan, bizkorak, pelotak harrapaitteko. Pedro Zelaia be ona zan errematian. Bixok manejaitten geben ondo ezker aidia”.

Afizionatu mailan nabarmendu egin zen Azkoitia, eta, hala, 1974an, 19 urte zituela, profesioletarako jauzia eman zuen Empresas Unidas-ekin kontratua sinatuta. Bergaran egin zuen debuta. Guereñorekin batera, Egiguren-Otaegiren aurka; 18-15 galdu zuten.

Ia bost urte eman zituen profesional mailan. Urtean 35 bat partidu jokatzen zituen. “Negu partian, hillian bi, akaso hiru; uda partian gehixau. Herri askotara bialketan gindduein: Lekeitixo, Ondarroa, Bermeo, Deba, Legazpi, Zumarraga.... Bestela, normalian, Bergara, Eibar eta Gasteizen jokaketan geben asteroko partiduak”.

Profesional mailako pilotaria izan arren, Ulma Forjan egiten



Aloña Mendiko Pilota sailak omenaldia egin zion 1995ean

zuen lan Azkoitiak. “Bai. Orduan gutxi batzuk (Ogueta, Retegi...) bizi ziran pelotatik. Nik partiduko kobraiten neben hainbeste. Akordaitten naiz, nobixiarekin Lekeitixora edo Ondarruara fan, afari on bat egin, eta gero bixigu pare bat erosten gebela hango diruakin”. Jaialdi asko astegunetan izaten ziren, eta gaueko 12:30etan jokatzen amaitu eta hurrengo goizeko 6etarako lanera joan behar izaten zuen Azkoitiak.

Ez zen sekula estelarrak jokatzeraz iritsi, baina gogoan du, adibidez, *Panpi* Ladutxeri irabazi zion eguna, Legazpin. “Oso errematatzaile ona zan, eta poliki poliki gora egin eben”. Ogueta, Retegi I, Pierola, Tapia, Vergara, Barberito, Lajos... ziren orduan puntako pilotariak.. “Neuri asko gustau izan xaten Oreja IIIa. Aurrelari bikaina zan. Zoritxarrez, oso gazterik hil zan”.

“Ez neben estelarrrik jokatu, baiña goguan dakot behin Panpi Ladutxeri irabazi notzala Legazpin”

“Partiduko ordainketan oskuein; nobixiarekin afari on bat eta bi bixigu erosteko lain”

Aurrelari petoa zen Azkoitia; binaka aritzeko pelotaria. Hala ere, banakako bigarren mailako txapelketan egin zuen proba behin, baina ez zen ondo atera. “Logroñon izan zan. Asko sufrirtu neben. Frontoia beteta, nerbixuak aidian...; 22-12 galdu neben Aurtenetxeren kontra. Lehena eta azkena. Hantxe ikusi neben ha etzala neretako, aurrelarixa nintzala ni”.

PROFESIOALETAN JARRAITZEARI UKO

Empresas Unidasekin zuen kontratua amaitu zitzaionean, Jolas-Nai enpersak eskaini zion profesioletan jarraitzeko aukera, baina Azkoitiak uko egin zion. “Pelotan trankil jokatu gura neben. Profesionalena beste mundu bat zan. Nahiz eta lagunak egin, hotzagoa zan. Bikote laguna beti desberdina, konfiantzarik ez; apustuen eta zaletuen presioa....”

1979ko urtarrilaren 6an jokatutako profesioletako azken partidua. Gero, afizionatuen lizentzia atera, eta Aloña Mendirekin jarraitu zuen 35 urte bete arte. “Juanito Osarekin makina bat txapelketatan ibili nintzan. Oso oroitzapen onak dakot. Kuadrilla bat giñan, eta oso ondo ibiltten giñan gure saltsatxoan”.

Euskararen erabilera %65,8koa da Oñatiko kaleetan



GAZTEEK (%92) ETA **HAURREK** (%83,6) HITZ EGITEN DUTE GEHIEN EUSKARAZ. **HELDUEN** (%59,5) ETA **ADINEKOEN** (%39,5) ARTEAN ASKOZ APALAGOA DA ERABILERA. IAZKO UDAZKENEAN OÑATIKO KALEETAN EGIN ZEN NEURKETAREN EMAITZAK DIRA


Iazko iraila eta urriko bederatzi egunetan zehar egin zen euskararen kale erabileraren azken neurketa Oñatin (90. hamarkadaz geroztik bost urtean behin egiten da). Guztira 1.966 elkarrizketa behatu zituzten Oñatiko gune ezberdinetan, eta horietan 5.542 hitzun ari ziren hitz egiten.

Eta azken neurketak eman duen emaitza orokorra zer da: berbetan ari zirenen ia %66 euskaraz ari zirela (duela bost urte baino ia bi puntu gehiago). Adin tarteka aztertuz gero, gazteak (15-24 urte) dira euskara gehien (%92,5) egiten dutenak. Datu ikaragarria dela adierazi zuen Soziologia Klusterreko Asier Basurtok; "Euskal Herri mailan altuena ez bada, altuenetakoa izango da". Haurren (2-14 urte) arteko elkarrizketetan ere euskara da nagusi (%83,6). Helduen (25-64 urte) artean erabilera maila apalagoa da (%59,5) baina, hala ere, duela bost urte baino ia 7 puntu altuagoa, eta, aldiz, adinekoen (+65 urte) artean ia 13 puntu jeitsi da euskararen erabilera, %39,5eraino. Gogoratu, euskararen ezagutza maila %74,6koa dela Oñatin, EUSTATen arabera (2011ko datua).


Balaunaldien arteko harremanak euskararen erabileran duten eragina ere aztertu da neurketan. Hala, aipagarria da, adibidez, haurren eta helduen arteko elkarrizketetan %75,9koa dela erabilera.

Herritar ezberdinen iritziak batu ditugu ondoko orrietan, kale neurketaren emaitzen irakurketa osatzeko asmoz.

EUSKARAREN KALE ERABILERA - 2016



EUSKARAREN ERABILERA ZONALDEKA-2016



Kale neurketaren emaitzen inguruko txosten osoa www.oñati.eus/zerbitzuak/euskara webgunean ikusgai

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Oñakua 17 beheak, esk. / Tel.: 722 733 712
argitagarbi@hotmail.com



Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

» **BALORAZIOAK** kale-neurketaren emaitzen inguruan**NEREA ZUBIA**

Udaleko Euskara batzordeburua (EH Bildu)

Emaitza onak dira, baina ez nuke balorazio triunfalista hutsa egin nahi

Oñatiko euskeraren erabileraren emaitzak onak dira. Ondorio orokorra Oñatiko kaleetan euskera

nagusitzen dela izateak, eta haur eta gazteen erabileraren maila altuak, pozik egoteko arrazoiak ematen dizkigu. Honetaz gain, inguruko testuinguruari so eginda, Euskal Herrian arnagune diren herrietako (euskararen ezagutza maila altua duten herriak) erdalduntzerako joera orokor eta kezkarriak badirudi ez digula eragin (momentuz, bederen).

Hala ere, ez nuke balorazio triunfalista hutsa egin nahi. Oñati ez baita irla bat eta ez nuke erlaxazioa bultzatu dezakeen mezurik bidali nahi. Iruditzen zait emaitza hauek mantendu eta hobetzeko ahaleginetan jarraitu behar dugula eta saiakera horretan jarraituko du Oñatiko Udalak beraren irismen eremuan. Baina hori ez da posible izango, ezta Oñatin ere, bestelako erakundeen inplikazio maila bera ez bada. Adibide gisa, anbulategira joan eta mediku/pediatrarekin euskaraz ezin badugu hitz egin. Edo gazteak lan-mundura txertatzen direnean giro erdalduna aurkitzen badute. Geurean ere, oraindik ere badago non eragin eta bakoitzak bere ardurak hartu beharko ditu, indibidualak nahiz kolektiboak.

XABIER ZABALETA

Udaleko Euskara teknikaria

Euskal hiztunok ahaldundu beharra dugu, zenbait hizkuntza-portaera aldatzeko

Oñatiko kaleetan euskarak presentzia nabarmena du (10 elkarrizketatik ia 7 euskaraz), eta azken

urteetako goranzko joerari eusten dio. Aipagarria da gazteak eta haurrak direla euskara gehien erabiltzen dutenak. Helduen eta adinekoen erabilera, aldiz, batez bestekoaren azpitik dago. Datuak ikusita Oñatin euskararen egoera osasuntsua dela esan daiteke, baina zereginik ere badago.

Esanguratsua iruditzen zait, adibidez, zenbat aldatzen diren hizkuntza-portaerak haurren presentziaren arabera. Zehazki, haurrak bakarrik daudenean (nagusirik gabe) %92,4koa da erabilera. Aldiz, nagusiak euren artean ari direlarik (haurrik gabe), erabilera %54ra jaisten da. Nahasita daudenean, euskarazko elkarrizketa kopurua igo egiten da berriro ere (%75,9).

Hor badugu aztertzeko eta eragiteko esparru bat. Hizkuntza-portaera horiek aldatzeko euskal hiztunok ahaldundu beharra dugu. Tresnak eta bitartekoak jarri behar dira, gaur haur eta gazte direnak helduarora iristean gaztelaniara pasatzeko beharrik senti ez dezaten.

AMAIA EROSTARBE

Udaleko Euskara batzordekoa (EAJ)

Oso esanguratsua da haur eta gazteen Euskara-gaitasun eta erabilera maila handia

Soziolingustika Klusterrak 2016ko irailaren 22tik urriaren 23ra egin zuen landa-lana Oñatin, kaleetan

zenbat euskara entzuten den neurtzeko. Oñatiko udala 1989an hasi zen kale-erabileraren datuak jasotzen. Hasieran, udalak berak egin zituen neurketak; Laixanen bidez egin ziren gero, eta Klusterrak egin ditu 2011n eta 2016an.

Oñatiarren % 74,6 da euskalduna (Eustat, 2011), baina zer hizkuntzatan komunikatzen dira? Galdera horri erantzuteko batu dira datuak 30 ordutan; behaketa bidez, kaleko elkarrizketen hizkuntzari erreparatu zaio hiru guneko ibilaldiak antolatuta: Errekalde, Olakua-San Lorentzo, herri barrua.

Ikerketak argitu du haurrek (2-14 urte), gazteek (15-25), helduek (26-64) eta adinekoek (65-) zer hizkuntzatan jarduten duten. Esaterako, elkarrizketetatik bi heren baino gehiago dira euskaraz (% 65,8); herrigunean egiten da gehien euskaraz (% 71,1) eta Errekalden gutxien (% 59,6)... Nolanahi, EAJ-PNVren udal-taldearentzat bi datu dira esanguratsuenak: haur eta gazteen euskara-gaitasun handia (% 90,6; % 91,0), eta haur eta gazte gehienek euskaraz egiten dutela haien artean (% 92,4; % 92,5). Gorantz doa, gainera! Bejondeiela gure haur eta gazteei!

(Hurrengo orrira)

fontanería y calefacción

BELOKI

> Iturgintzako material salmenta

> Komun eta sukaldeetako erreformak

> Rzuilejoen salmenta

> Kalefazioa eta aire girotua

> Diseinua, dekorazioa eta opariak

> Obren koordinazioa

etxebizitza osatzeko
behar duzun guztia

Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI

Hala ere, ez gaitezen larregi poztu berri horrekin, beti egoten da zer hobetu eta! Hain zuzen, kontuan hartzekoa da, gure ustean, Kalegoienako jolasgunea. Behin baino gehiagotan entzun ditugu zenbait ume gaztelaniaz berbetan hor, baina datu zehatzak behar ditugu, praktika zuzentzailerik ezarri behar zaien jakiteko. Horren harira, EAJ-k kale-neurketaren ibilaldiari gune hori gehitzea eskatu zuen Euskara-batzordean 2016ko kale-neurketa proposatu zenean (2015-10-15). Egiteko dago.

“Lelengo erein ein biada gero batzeko”, dio eserak, eta ezin ahaztu Oñatiko udalak, ikastetxeek, familiak, herriko elkarteek... zer-nolako ahalegina egin duten azken 30 urteetan euskararen irakaskuntzaren eta erabileraren alde.

ROBERTO ALTUNA
Udal Euskaltegiko zuzendaria

Ume eta gaztien arteko ebaleran salto hiperbolikua emun da. Bejondeixola hezkuntza sistemaiari!



Atziak erakusten ei dau aurria zela dantzatu, horregatik 1983ko otsaillian herriko Euskal Herrian Euskaraz taldiak egin eben lehenengo enkuestiaren emaitzak

azkenenguearekin konparaittera joko dot, aldiak ikusteko:

Ordutik hona ume eta gaztien arteko ebaleran salto hiperbolikua emun da. Bejondeixola hezkuntza sistemaiari! Helduen artekuak be gora egin dau eta adiñekuen artian pasau dana, berriz, harriketakua, talde honetan jaitsi egin “ei” dalako kaleko ebaleria erdi ingurura. Egixa ete da? Enkuesta egilliai preguntau bihar! Datu positibuakin jarraituaz ebalera orokorra doblau egin dala eta sexuen arteko ebaleran eztaguela alderik. Zorionak andrazko guztioi lehenagoko lotsa eta erreparo danak pikutara botatiagatik! Aittatuko dogu bestetik, %1,5 alkarriketa euskaria edo erderia eztan beste hizkuntza batian emuten dirala gaur egunian Oñatin, globalizaziñua hona be aillgau dan seiñale.

Ebalera datuak poztekuak dira benetan, belaunaldi batian majo aldatu diralako kontuak, hala ta be aztertu biharko litzake ebalera horren kalidadia zelakua dan eta konbersaziñuen mamiña zein hizkuntzatan esaten dan, baiña ezteigun geure burua larregi zigortu eta pentsau degigun ebalera masibotik kalidadia eta mamiña be etorriko dirala. Ia, ba, beste belaunaldi batian eskuraketan dogun gaztiak lortu dauein mailla hori adin talde danetan emutia bai kalidadez, bai mamiñez. Hala izan dedilla!

KEPA ELORTZA
Euskalzalea

Hizkuntza baten aberastasuna ezin da neurtu hizlari kopuruarekin, hizkuntzaren kalitatearekin baiño



Kaleko erabilleraren emaitzak antzekuak dira azken 15 urtietan. Garbi dago, Oñatin euskeraz egitten dauela jente

gehixenak. Hala ta be, euskaria salbaitteko ezta nahikua euskeraz egittia. Euskera aberatsa egitten dogu, edo, bestela, akabo. Hizkuntza bada herrixa eta pertsonak egitten gaittuen, zenbat eta pobriagoa izan hizkuntza, geu be orduan eta pobriagoak izango gara.

Arazua, nere ustez, komunikaziñuan dago. Komunikaziñua gutxittuz doia. Jendiak berba egitten dau, baiña ez da komunikaitten, eta, gaiñera, berba hori birtuala da, askotan. Berbak aidian dagoz, eta ez gure burmuin edo bihotzetan. Eta komunikaziñua gutxiketia ondorixoz jeitsi da euskariaren, eta beste hizkuntzen, kalidadia.

Hizlari kopuruak bakarrik eztau hikuntza egitten. Hizkuntza baten aberastasuna ezin da neurtu hizlari kopuruarekin, ebalten dogun hizkuntzaren kalitatearekin baiño.

UDAKO EGA IKASTAROA EUSKALTEGIAN

EKAINAREN 29TIK UZTAILAREN 28RA

Ordutegia: 09:00 - 13:15

(20 egun x 4 ordu = 80 ordu)

Izen-ematea: ekainaren 1etik 23ra

943782496 / euskaltegia@onati.eus

Prezioa: 116 euro

(EGA eta HABEren bigarren deialdiko azterketak prestatuko dira ikastaroan zehar. Irailean eta urrian izango dira azterketak)

Edozein eta, 09:00 - 13:15 euskaltegia@onati.eus

UDA HONETAN ...

... ZEUR EGA NATU!

UDAKO EGA IKASTAROA - 2017

Ekainaren 29tik uztailaren 28ra
Goizeko 9:00etatik 13:15era
80 ordu
Matrikula open Ekainaren 1etik 23ra
Prezioa: 116 €

ELKAR HEZIn IZATETIK EKITERA: BATZORDE MISTOAK.

ZER EZAUGARRI IZAN BEHAR DITU GURE AMETSETAKO IKASTETXEAK?

Lehenetsitako Ametsak gauzatu ahal izateko, IKASKOMeko Jarduera Arrakastatsuetako bat jarri dugu martxan ikastetxean; Batzorde Mistoak eratu ditugu komunitateko kide desberdinen artean (irakasle, guraso, ikasle, boluntario) eta hezkuntza-komunitate osoari eragiten dion edozein ekimen/arazo/kezka esanguratsu halaxe bideratzea du helburu.



Iratxe Aranburu
Zuzendari akademikoa



Oier Diaz
DBH 3ko ikaslea



Nerea Kortajarena
Haur Hezkuntzako ama

IKASKUNTZA BATZORDE MISTOA

Ikaskuntza arrakastatsuen faktore kritikoak (denontzako arrakasta laguntzen dutenak eta oztopo izan daitezkeenak) identifikatu eta zehaztu nahi ditugu, denon eredu/jarraibide izan daitezen, eta horren araberako ebaluazioak, garapenak, aldaketak, doiketak, prestakuntza... gauzatzeko. **“Etixerako lanen inguruko diagnostikoa egitearekin hasiko gara berauen garrantzia, egokitasuna, iraupena, kopurua...aztertuz”.**

BIZIKIDETZA ETA PARTAIDETZA BATZORDE MISTOA

Ikastetxean elkarbizitza ezin atseginagoa eta egokia sortzea dugu helburu, komunitateko kide guztiak parte direlarik eta horixe sentitzen dutela. **“Hezkuntza Komunitate Zientifikoak egiaztatutako markoren bidetik, o urtetik o biolentzia da gure xedea eta apostua, betiere bereziki zainduz prebentzioa eta genero-indarkeria”.**

BALIABIDE BATZORDE MISTOA

Ikastetxeko instalazioen hobekuntzarekin, altzariekin, harrekin, apainketarekin, gune berrien antolaketarekin, ikastetxeko partaideek behar eta/edo dituzten materialen aprobetxamendu egokiarekin... zer ikusia duten ametsak egia bihurtzeko ari gara lanean. **“Konkretuki guneen antolaketa berria aztertzen ari gara”.**



Guk egin dugu gure aukera,
eELKAR HEZI.
gin zeurea orain.

Zatoz gu ezagutzera
Bakarkako bisitak egiteko edota informazio gehiago eskatzeko: 943718272.

www.elkarhezi.eus

Hautzaindegia, HH eta LH: Arantzasuko ama IB. 943 71 82 72

DBH eta Batxilergoa: Santa Marina 2. 943782870.





“Jendea behar dugu oraindik Kilometroen egunean lan egiteko”

LAU HILABETE BESTERIK EZ DIRA GERATZEN IRAILAREN 24AN OÑATIN OSPATUKO DEN KILOMETROAK-2017 FESTARAKO. ABESTIA ETA BIDEOKLIPA AURKEZTUTA, JAI EGUNERA BEGIRA JARRITA DAUDE JADA ANTOLATZAILEAK. LANTALDEAK IA OSATUTA DAUDE, BAINA ORAINDIK JENDE GEHIAGO BEHARKO DA DENA BEHAR BEZALA ANTOLATU AHAL IZATEKO, MALEN UGARTE KILOMETROAK-2017KO KOORDINATZAILEAK ADIERAZI DIGUNEZ. “BAKARKA EDO TALDEKA, DENAK ONGI ETORRIAK IZANGO DIRA”.

Zortzi hilabete igaro dira Kilometroak jaiaren lekukoa Oñatira iritsi zenetik. Orduz geroztik makina bat ekitaldi antolatu dituzue. Zein da orain artekoaren balorazioa?

Oso ona. Ekitaldi asko izan dira eta zaila da hitz gutxitan laburbiltzea, baina, beste ezeren gainetik, herritarren inplikazioa eta partehartzea azpimarratu nahi nuke. Ikastolako ikasle,

“

Kilometroak jaia antolatzeko 1.550 pertsona beharko ditugu

irakasle eta gurasoez gain, heriak, oro har, eskaini digun babesa izugarria izan da. Orain arteko ekitaldi asko ez ziren posible izango herriko eragile, elkarte, denda, enpresa eta abarrek erakutsi diguten borondate eta elkarlanik gabe. Beraz, eskerrik beroenak guztiei.

Lau hilabete besterik ez dira falta (udako oporrak tarteko)

Kilometroak egunerako. Nola doaz antolakuntza lanak?

Hasita gaude Kilometroak egunean izango ditugun beharrak (pertsonalak, materialak...) zerrendatzen. Lantalde guztiak martxan daude eta, oro har, ondo goazela esango nuke, baina oraindik jende gehiago behar dugu Kilometro egunean laguntzeko. Tamaina handiko jaia da, eta dena behar bezala

PSICLOGIA ZENTROA
ROSA RUEDA
Zubilaga Auzoa, 20
943 04 74 06
psicologia-rueda@cop.es
www.psicologiarosarueda.com

ANSIETATEA
ESTRESA
FIBROMIALGIA
DEPRESIOA...

Amalia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera libentziak
tel: 677 31 20 57 • email: amaliigartua@gmail.com • Oñati

antolatu ahal izateko 1.550 bat lagun beharko ditugu. Oraingoz 1.000 inguru daude izena emanda.

Beraz, lerro hauek baliatuz, animatu egin nahi dut jendea Kilometro egunean laguntzera (txosnetan, ibilbidean, trafikoan, segurtasunean...). Bakarka edo kuadrillaka, denak ongi etorriak izango dira. Laguntzeko prest dagoenak km17gizabaliabideak@txantxikuikastola.eus helbidean eman dezake izena, edo, bestela, ikastolara deituta.

Ibilbidea zehaztuta dago, jada?
Bai, 6 bat kilometroko ibilbidea da, herriko plaza eta ikastola, Santa Lutzia, Asentzio eta Urrutxu inguruak lotuko dituen. Hiru jai-gune nagusi egongo dira: Foruen enparantzan, Asentzion, eta Urrutxuko garbigune inguruan (azken hau, batez ere, gazteentzat).

Egunean bertan egongo diren ekitaldien egitaraua ere nahiko lotuta daukagu, baina laster emango dugu horien berri prentsurreko baten bidez.

Auzolana aldarrikatu nahi duzue Kilometroak jaiaren bidez. Zergatik?

Ikastolen eta, zehazki, gure ikastolaren sorrera eta bilakera herritar askoren auzolanaren emaitza delako, eta benetan sinisten dugulako lan egiteko eredu horretan. Gaur egungo gizartean gero eta zailagoa izaten da auzolanerako tartea eta borondatea aurkitzea, baina Kilometroak bezalako jaiak balio dute herri kontzientzia eta konpromiso kolektiboaren garrantzia bistaratzeko. Uste dugu auzolana, herritarren arteko elkarlana, dela herrigintzarako bitartekoa, eta horregatik indartu nahi dugu auzolanaren aldeko mezua.

Izan ere, Kilometroak jaiaren helburu nagusietako bat ekonomikoa da, baina ez bakarra, ezta?

Duda barik, diru baliabideak lortzea da helburu nagusia. Hezkuntza eredu berria (Konfiantzaren Pedagogia) abian jartzeko ikastolan egin diren

“

Orain arteko ekitaldiak aurrera ateratzeko herritarren aldetik izan dugun inplikazioa eta partehartzea azpimarratu eta eskertu nahi dut

Kilometroetako ibilbideak 6 bat kilometro izango ditu. Herriko plaza eta ikastola, Santa Lutzia, Asentzio eta Urrutxu inguruak lotuko ditu

obrei, eta bigarren hezkuntzako proiektu berriei aurre egiteko baliabideak lortzea da helburua.

Baina, bestalde, auzolanean oinarritzen den Kilometroak bezalako jai batek komunitatea eta herrigintza sendotzen ere laguntzen du, eta hori hor gel-ditzen da herriaren onerako. Beti esaten dugu, ikastolarentzat ez ezik, herri osoarentzako jaia dela, eta hori adierazi nahi izan genuen Kilometroak jaiaren lekukoa alkateari utzita.

Maila pertsonalean, zer suposatzen du tamaina honetako jai baten koordinatzaile izateak?
Erronka eta erantzukizun handia. Oso lotua eta absorbentea izaten ari da, eta, aldi berean, oso aberatsa. Ikastolakoa ez ezik, herriko dinamika gertutik ezagutzeko aukera eman dit, eta asko ikasten ari naiz. Zorionez, lantalde zabala osatu dugu, eta jende asko hurbildu zaigu laguntzeko prest, eta denon artean lortuko dugu jaia arrakastatsua izatea.

Kilometroak egunean lagunddu nahi baduzu eman izena: km17gizabaliabideak@txantxikuikastola.eus

Irazan taldekoen 'Inpro show'a, Kilometroen alde



'SUPITUKI' INPROBISAZIO SAIOA
EKAINAK 2, OSTIRALA,
GAZTELEKUAN, 22:30 (Sarrera, 5€)

Irazan Antzerki Guneak jorratzen dituen arlo ezberdinen artean inprobisazioa dago, bat-batekotasuna. Eta horren adibidea ikusteko aukera izango dugu ostiralean (ekainak 2). Irazan taldeko kide diren Itziar Arkauz, Egoitz Aizpuru, Ariane Telleria eta Josu Zubiak 'SUPITUKI' izenburua duen ikuskizuna eskainiko dute Gaztelekuan, Kilometroak-2017 kultur egitarauaren baitan. Publikoak ere garrantzia handia izango omen du, ikusleek txartel batzuetan idatzitako esaldietatik abiatuta sortuko baitira istorio ezberdinak. Hasi, horrela hasiko dira istorioak, baina bukatu... auskalo!, antzerki mota honetan segunduz segundu eta hitzez hitz sortzen eta garatzen baitira egoerak eta istorioak.

'ELEANITZ' PROIEKTUA ETA 50. URTEURRENEKO LIBURUA.

Euskal hiztun eleanitzak hezteko helburua duen 'Eleanitz' programak 25 urte betetzen ditu aurten, eta hori ospatzeko mahai ingurua egingo da ekainaren 16an kultur etxean (18:00). Bestalde, ekainaren 28an ikastolaren 50. urteko ibilbidea jasotzen duen liburua aurkeztuko da.



Egaralur, 50 urte Oñati eraikitzen

Egaralur eraikuntza enpresak 50 urte bete ditu. Mend erdiko ibilbidea etorkizuna eraikiz. Oñatitik kanpora ere lan asko egin ditu Egaralurrek, baina, Oñatin, bereziki, azken bost hamarkadetan egin diren etxebizitza promozio inportanteenetan parte hartu du. Maiatzaren 5ean elkartu ziren enpresako bazkide eta langileek, 50 urtekoibilbidea ospatzera, goiko argazkian ikusten den moduan.

Lau lagunen artean (Jose Luis Egaña, Pedro Aranburu, Bittor Altube eta Jose Mari Urzelai) sortu zuten EGARALUR S.L. eraikuntza enpresa 1967ko apirilean, eta, hain zuzen, sortzaileen abizenen akronimoa da Egaralur.

Arotz, igeltsero eta enkofratzaile lanetan arituak, indarrak batu eta estrukturak eraikitzen hastea pentsatu zuten. Zubillagan eta Apaolaza (gaur egun Maria Irizar) kalean egin zituzten lehenengo etxebizitzak, zimentatze lanak pikatxoia eta zinta metrikoarekin egiten ziren garaian. Artean ez zegoen garabirik, ez topograforik ez eta autocad-ik ere. “Gero Aristrain fundiziñora fan giñan, Olabarrian, eta pabilloi danen teillatuak (12.000m²) ipini gittuan” gogoratzen du Jose Mari Urzelai. “Gero, bi grua erosi eta Arrasatera fan giñan, kontrata moduan 94 etxetarako estrukturak jasotera. Hura izan zan gure lehenengo obra haundixa”.

Gero beste asko etorri ziren, bai Oñatin eta baita herritik kanpora ere; Legazpi, Eibar, Bergara, Elgeta, Antzuola, Azkoitia, Tolosa...

Oñatiri dagokionez, azken hamarkadetan Oñatin egin diren etxebizitza promozio inportanteenetan parte hartu du Egaralurrek. Errekaldeko errekaaren kanalizazioa egin zuten oso-osorik, eta gero San Lorentzo, Bidebarrieta, Kalegoiena edota San Martingo auzuneen eraikuntzan parte

hartu du.

Etxebizitzak ez ezik, industria pabilioiak eraikitzen edota berritzen ere lan asko egin du Egaralurrek, Ulma, Garay, Fagor, Zahor, Chinchurreta, Eroski eta beste hainbatentzat.

Oñati eta, oro har, Gipuzkoa izan da Egaralurren lan eremu nagusia, baina, tarteka, Bizkaia aldean (Bilbo, Lemoa, Erandio, Neguri...) ere egin izan ditu, eta gaur egun, esaterako, Araban (Laudion) murgilduta dabil, etxebizitza promozio handi batean.

Zaila da 50 urteko ibilbidea lerro gutxitan laburbiltzea. “Danetik egon da” dio Urzelai; “urte onak, bai, baiña garai txarrak bebai. Hasierako urtiak oso gogorak izan ziran, %14

egaralur
CONSTRUCCIONES Y SERVICIOS

50 urteko
ibilbidean
1.100 etik gora
etxebizitza
eraiki ditu
Egaralurrek



SAN MARTIN gunean 22 etxebizitza eraikitzen ari da une honetan Egaralur

eta %17raiñoko interesekin; oso zailla zan finantziaziñua lortzea”.

KRISIA AUKERA

Eraikuntza sektorea gogor astindu duen krisi giroan iritsi da 50. urteurrenera Egaralur. 2008an hasi zen krisiak 6.000 lanpostu suntsitu ditu Gipuzkoako eraikuntza sektorean eta %42ko jeitsiera ekarri du obra publikoan.

“Esaten dute, mozkorraldia zenbat eta handiagoa izan, erresaka edo biharamuna ere halakoa izaten dela. Beraz, kontuan hartuta krisi aurreko boom inmobiliarioak 15 bat urte iraun zuela, oraindik itxaron egin beharko dugu egoerari buelta emateko” uste du Jesus Mari Valgañonek, Egaralurreko gerenteak. “Konfiantza eta lasaitasun giroak behar ditu kontsumitzaileak etxebizitza bat erosteko, eta gaur bizi dugun mundu globalizatuak ez du horretan laguntzen”.

Gu, zorionez, kaudimen eta finantza egoera onean harra-patu gaitu krisiak, eta geuk ere gerrikoa estutu behar izan dugun arren, indartuta ateratzen ari gara krisitik, aukera berriak zabaldu dizkigulako, lehen pentsaezinak zirenak”.



Errekaldeko erreken kanalizazioa izan zen Egaralurren lehenengoetako obra



San Lorentzon 160 etxebizitza eraiki zituen Egaralurrek, eta Bidebarrietan 300dik gora. (Argazkiak: Jesus Mari Arzuaga funtsa - Oñatiko Udal Artxiboa)

Egaralurrek esperientzia handiko 22 lagunez osatutako lantalde finkoa dauka egun, eta ISO agiriak ditu kalitatea, prebentzioa eta ingurumen arloetan.

Une honetan, San Martinen ari da eraikitzen 22 etxebizitza (A mailako kalifikazio energetikodunak), eta San Lorentzoko bidegorria ere egiten ari da. Oñatitik kanpora Tolosan ari da etxeak egiten, eta, bestalde, Laudion 200 etxebizitzako promozio bati ekitekotan da.

Egaralurrek eskerrak eman nahi dizkie 50 urte hauetan bidelagun izan dituen bazkide, langile, hornitzaile eta bezero guztiei.

“ Krisialdi honetatik indartuta ateratzen ari gara

“ Laudion 200 etxebizitzako promozio bati ekingo diogu laister

lurgorridenda@gmail.com

- Pentsuak
- Lan tresnak
- Haziak
- Landareak
- Lan erropak

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
eta beste hainbat gauza...

943 905 740 - 663 384 052

caravanas

oñate

• GALDARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel: 943 71 63 50
www.caravanasonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

» JUAN CARLOS IZAGIRRE / EH Bilduko kidea

“EH Bildu berriak militante propioak izango ditu eta egitura eraginkorragoa, eguneroko arazoei arinago erantzun ahal izateko”



Sortu, Eusko Alkartasuna, Aralar eta Aleratiba alderdiek osatzen duten Euskal Herria Bildu koalizioa eraldaketa prozesuan murgilduta dago. Koaliziotik haratago, ahots propioa izango duen subjektu politiko bilakatzeko urratsa ematera doa. Ekainaren 17ko kongresuarekin burutuko da prozesua. Testuinguru horretan, Juan Carlos Izaguirre eta Maider Otamendi koalizioako kideak izan ziren Oñatin, EH Bildu berriak izango duen egitura eta funtzionatzeko modua azaltzen, eta oñatiarren ekarpenak jasotzen. Donostiako alkate ohiarekin hitz egiteko aukera izan genuen.

Berritze prozesuan murgildu da EH Bildu. Zer dela eta?

Egitura irekia eta dinamikoa izateko asmoz sortu zen EH Bildu. Ildo horretan, prozesu honek erantzuten dio bi behar nagusiri. Batetik, eguneroko lanean (erakundearen kudeaketan...) sortzen diren arazoei berehala erantzun ahal izatea (lau alderdietan kontsultak egiten ibili beharrik izan gabe), eta horretarako egitura propioa behar da, efizienteagoa.

Bestetik, militante propioak edukitzea, eta ateak irekitzea EH Bilduren proiektua konpartitzen duten herritar guztiei, alderdi politiko bateko

kide izan ala ez. Ildo horretan, *bilkide* figura sortu nahi dugu, eta egitura berriaren erabaki organoetan parte hartzeko aukera izango dute bilkide guztiek.

Maila ideologikoan ba al da aldaketarik?

Ez. EH Bilduk eutsi egiten die bere oinarriei: Euskal Herriaren askatasunaren eta bere eskubi-deen defentsa tinkoa egitea, herria ezkerretik eraikitzea, eta politika egiteko beste modu bat badagoela erakustea, behetik gorakoa, alegia. EH Bilduk herri mugimendu izaten jarraituko du, kalean lana egiten,

Bildu berria da, benetan, Euskal Herriaren askatasunaren alde egin dezakegun apustu garbiena eta sendoena

‘Bilkide’ figura sortuko dugu, EH Bilduren proiektuarekin bat egiten duten herritar guztiei ateak irekitzeko, alderdi politiko bateko kide izan ala ez.

auzoetan, herrietan, jendearen-gandik hurbil, beti ere.

EAren baitan ahots kritikoak agertu dira EH Bilduk izango duen egitura berria dela eta. Alderdiek indarra nabarmen galtzen dutela kiritikatu dute, eta EH Bilduk aniztasuna.

Nik, pertsonalki, uste dut positiboa dela alderdi bakoitzak bere ahots propioa mantentzea, eta uste dut hori bermatuta gertatzen dela EH Bilduren egitura berrian, besteak beste, Mahai Politikoa bezalako organoarekin. Uste dut alderdiak indartuta ateratzen direla prozesu honetatik, eta horrek indartu egiten duela EH Bildu.

Beraz, errezeloa izan dezaketen militanteei esango nieke proiektu hau dela alderdi politiko bat baino askoz gehiago, eta EH Bildu berria dela, benetan, Euskal Herriaren askatasunaren alde egin dezakegun apustu garbiena eta sendoena.

Jende asko dabil lanean herri

**ARANBURU
ALTZARIAK**
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

joste tailerra
Jostun Chic
Goruri Etxebarria Arzuaga

- Arropen konponketak
- Erreformak
- Jantzigintza berria

Motxon kalea, 3
T. 635 749 477
Adin guztietarako klaseak

mugimendu ezberdinetan, jendarte justuago baten alde, ohiko politikak baztertu eta gauzak beste modu batera egiteko gogoz, eta horiek denek sentitu behar dute lekua daukatela EH Bildun, eta eragin-korragoa izango dela beraien lana denok batera egiten badugu.

Ekainaren 17ko kongresuan burutuko da berritze prozesua. Oraindik badago bertan parte hartzeko aukera, ezta?

Bai, kongresuan parte hartu nahi duenak ekainaren 4rte eman dezake izena kongresua.ehbildu.eus webgunean. Gero, ekainaren 12tik 16ra bitartean bozkatzeko aukera egongo da, zuzendaritza organoetako kideak hautatzeko, eta hilaren 17an emango da jakitera nortzuk izan diren aukeratuak.

Indar handiz ekin zion bere bideari Bilduk 2011n. Gero jeitsiera izan zuen 2015ean. Nola ikusten duzu etorkizuna? Oso baikor. Jende asko dago herri honen norabidea aldatzeko aukera ikusten duena, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko benetako apustua egin nahi duena, eta herria ezkerretik eraiki nahi duena.

Eta sinistuta nago, gainera, hori guztia egin daitekeela moduak aldatuz, behetik gora, jendearekin batera, aspalditik ikusten ari garen despatxoko politikak alde batera utzita, herritarrek senti dezaten, benetan, politika eta kargu politikoak tresna bat besterik ez direla herri borondatea kudeatzeko.



ARRIKRUTZ

10. urteurrena ospatzeko ekintza bereziak

Ekainaren 7an beteko dira hamar urte Arrikruzeko koba turismorako zabaldu zenetik, eta hori ospatzeko ekintza bereziak egingo dira aurreko eta ondorengo larunbatetan. Hala, ekainaren 3an indusketa tailerrak egingo dira Arrikruzeko Harrera Gunean, goizeko 11:00etan eta 16:00etan. Arrikruzeko lehoiaren hezurdura nola aurkitu zuten, eta indusketa nola egin zuten azalduko dute bertan. Tailerretan parte hartzen dutenek historiaurrearekin lotutako oroigarri bana jasoko dute. Aurrez izena emateko deitu 943082000 zenbakira. Tailerrak euskaraz eta doan izango dira.

OÑATIAARENTZAKO BISITA BEREZIAK / Ekainak 3
Ekainaren 3an Arrikruzeko koba bisitatzeko aukera eskainiko zaie herritarrei prezio berezian (3€). Goizeko 11:00etan, 12:00etan, 13:00tan, 17:00tan eta 18:00tan izango dira bisitak. Hauetarako ere plazak mugatuak direnez, lehenbailehen izena ematea komeni da 943082000 zenbakira deituta. Aukera ederra Oñatiko lurrazpiko altxorak eta Arrikruzeko lehoiaren bizilekua ezagutzeko.

LEHOIAREN HEZURDURA IKUSTEKO IRTEERA / Ekainak 10

Arrikruzten aurkitutako lehoiaren benetako hezurdura Irungo Gordailuan (Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa) dago, eta bertara joateko irteera antolatu da ekainaren 10erako. Goizeko 9etan abiatu eta 14:30etarako Oñatin izango dira bueltan. Lehoiaren hezurduraz gain, Gordailuan dauden beste altxor batzuk ikusteko aukera ere egongo da Asier Gomez paleontologoaren eskutik.

Plaza mugatuak dira, autobusa bete arte. Beraz, eman izena lehenbailehen turismo bulegoan (5€ ordaindu beharko da autobus txartelaren truke).

» Indusketa-tailerrak egingo dira ekainaren 3an, eta Arrikruzeko koba prezio berezian ikusteko aukera izango dute oñatiarrek

» Arrikruzeko lehoiaren jatorrizko hezurdura ikusteko irteera egingo da Irungo Gordailura ekainaren 10ean

ANE MERTZERIA

• Josteko zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak
Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

• Kartoi ondulatuen fabrikazioa
• Enbase eta enbalajeen fabrikazioa
Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Zer dira OÑARGI eta CHC?

Zein abantaila ditu kanpoko enpresen aurrean?

Udal jabetzakoa den argindar sarearen inguruko kontzientzia pizteko asmoz, bi hitzaldi informatibo eskainiko ditu udalak ekainaren 7an eta 13an

Azkenaldian argindar enpresa handietako (Iberdrola, Gas Natural Fenosa...) komertzialak etxez etxe dabilta Oñatin, bezero berriak egin guran. Eta kasu askotan, herritarren informazio gabeziak baliatuta, ohikoa izaten da merkaturatzaile konpainia aldatzea. Egoera horretaz jabeturik, Udalak garrantzitsua ikusten du herritarrei Oñatiko argindar sare publikoaren inguruko informazioa helaraztea, eta horretarako bi hitzaldi antolatu ditu. Oñargiko bulegora jo dugu argibide bila.

Oñatin, etxez etxe dabilta komertzialak informazio desagokia ematen dutela ohartarazi duzue. Hala al da? Bai. Sarritan, Oñatiko udalarentzat lanean ari direla esaten dute, eta hori ez da egia. Oñargik, oraingoz, ez dauka komertzialik herrian lanean.

Bestalde, esaten dute Oñargik ez duela fakturatzeko, eta hori ere ez da egia; argindarraren merkaturatzaile liberalizatu zenetik (2009an) Oñargik CHC konpainia sortu zuen, beste enpresa batzuekin batera, eta, orduz geroztik, CHCren bitartez fakturatzeko die bezeroei.

Bestalde, komertzialak esaten ari dira CHCren azken faktura ez dela zuzena, bezeroari faktura erakutsi araziz, konpainiaz aldatzeko trikimailu gisa, eta hori ere ez da zuzena. Garbi utzi nahi dugu CHCren fakturak zuzenak direla.

Halako praktikek zalan-tza eta susmoak sortu dituzte herritarren artean, eta asko dira OÑARGIren bulegora deitu edo etorri direnak argibide eske.



Mari Tere Galdos eta Ana Iragi, Oñargiko administrariak

“ Herritarrei esan nahi diegu, ezer sinatu aurretik Oñargiren bulegora etor daitezkeela fakturen konparaketa egitera, edo kontratu baldintzei buruzko beste edozein argibide jasotzera

Deskontu hitzekin nahasten gaituzte argindar konpainiek, baina, gero, azken fakturan gehiago ordaindu behar izaten dugu askotan ”

Bestalde, enpresa horiek eskaintzen dituzten prezio eta produktuen inguruan ere kontuz ibiltzeko gomendioa egiten duzue, ezta? Bai. Deskontu hitza aipa-

tzen dute, baina, askotan, oinarritzko prezioa igota egoten da eta, beraz, deskontua ezerezean geratzen da.

Argindarraren fakturan bi kontzeptu daude: potentzia

eta energia. Eta, batzuetan, energia kontzeptuan deskontua eskaintzen digute, baina potentziaren prezioa igotzen dute, eta azkenean garestiago irtetzen zaigu.

Gainera, gehienetan zerbitzu osagarri bat sartzen dute (mantenu elektrikoa...) eta horren truke kuota bat ordaindu behar da. Beraz, hileroko fakturan ordaintzen dugun azken prezioarekin egin behar dira konparazioak.

Horregatik, herritarrei esan nahi diegu, Oñargik eta CHCk bidebarrieta kalean duten bulegora etor daitezkeela, ezer sinatu baino lehen, fakturen konparaketa egitera, potentzia eta tarifen azterketa egitera, edo prezio eta kontratu baldintzei buruzko beste edozein argibide jasotzera.

Gogoratu behar da, gainera, Oñargi edo CHC enpresekin kontratua edukitzeak abantaila asko dituela, bai bezeroarentzat, eta baita herriarentzat ere, ezta?

Bai. Esan dugun moduan, Oñargik eta CHC-k bulegoa dauka herrian (Bidebarrieta kaleko 24an) eta, beraz, hurbileko eta zuzeneko zerbitzua eskaintzen dio bezeroari, edozein arazo tekniko-ri erantzun bizkorra eskainiz.

Bestalde, Oñargik urtean lortzen dituen irabaziak

“ Oñargiren irabaziak Oñatiko udalera doaz, eta diru hori inbertsioak eta hobekuntzak egiteko erabiltzen da

(900.000 euro inguru iaz) Oñatiko udalera doaz, eta diru hori herrian inbertsioak eta hobekuntza egiteko erabiltzen da. Beraz, herriaren onerako da.

Gainera, gogoratu behar da, CHC barruan CHC COR enpresa eratu dela, eta azken baliabideko (*último recurso*) enpresa denez, bono soziala (%25eko deskontua) aplikatzen die baldintza jakin batzuk betetzen diren kasuetan (familia ugariak izatea, kide guztiak langabezian egotea, pentsio minimoak jasotzea, eta ohiko etxebizitzan 3 kw. baino gutxiago kontratatuta edukitzea).

INFORMAZIO BILERA IREKIAK
REUNIONES INFORMATIVAS

Ezagutzen al duzu Oñatiko elektrindarraren ekoizpen, banaketa eta salmenta?

OÑATIKO UR JAUSIAK
METKADENA

OÑARGI
EHC

¿Conoces la red local de producción, distribución y venta?

Iberdrola, Unión Fenosa... bezaiko enpresetako komertzialen bistrak ugariak dira.

INFORMATU ZAITEZI
Infórmate!!

Ekainak 7 eta 13
18:30ean Kultur Etxean

Ehun urte argindarra sortzen

Ehun urteko historia luzea du Oñatik argindarrari lotuta. 1893an sortu zen elektrindarra sortzeko lehen enpresa (Biaín y Cia). 1908-1915 arten jarri ziren martxan lehen argindar zentralak (Olaran eta Urdantegieta). 1967an Bustinzuloko eraldaketa zentroa eraiki zen, eta 1989an Udalak Olateko Ur Jauziak erosi zion UCeMi. Gero, 2000.ean, Oñargi enpresa banatzailea sortu zuen. Urtean 15.000 Kw. inguru produzitzen ditu, eta argindar merkatua liberalizatu zenetik (2009) CHC enpresaren bidez komertzializatzen du.



Sartu ate guztiak zabalduko dizkizun prestakuntzara. Zurea da aukera!

Heziketa Zikloak: Larraña

Erdi mailako Heziketa zikloak:

- Mantentze-Lan Elektromekanikoak
- Mekanizazioa
- Natur ingurunean gorputz eta kirol Ekintzen Gidaritza

Aurrematrikula: ekainaren 5etik 16ra.

Matrikula: uztailaren 13tik 19ra.

Batxilergoa: Zuazola

Matrikulazioa: ekainaren 20tik uztailaren 6ra.



Olaitturriko kirol gunea estaltzea aztertzen ari da udala

Olaitturriko kirol gunea estali eta erabilera anitzeko gune bihurtzeko aukera aztertzen ari da udal gobernu taldea. Kirolerako eta jolaserako ez ezik, gaur egun kiroldegian egiten diren beste haibat ekitaldi (bazkariak, kontzertuak, ikuskizunak...) egiteko erabili ahal izango litzateke estalitako gune berria. Gainera, Agustinoen inguruko azalera osoa aprobetxatuz, parking egonkor bat egokituko litzateke kantxaren ondoan. Udalak 25.000€ko diru-atala dauka aurtengo aurrekontuetan proiektua idazteko.



Autokarabanen gunea Alemaniako ADAC gidaren errekonozimendua jaso du

Europa osoan dauden karabana guneen azterketa eta sailkapena egiten du ADAC gidak (azkenengo azterketan 5.800 gune baloratu dituzte) eta Oñatikoak goren mailako aitortza edo errekonozimendua jaso du, ADACeko arduradunak Oñatiko turismo bulegoari jakinarazi dionez. Errekonozimendu hori ADAC gidan eta ADAC *Camping* mugikorretarako aplikazioan ere jasoko da, eta San Martingo gunean bertan ere jarriko da errekonozimenduaren berri emanez ADACek Oñatira igorri duen plaka ere.



Herribusa Usakora joango da

Aldizkaria ixteko orduan azken erabakia hartu gabe zegoen arren, ia segurutzat eman dezakegu Herribusa Usakoraino joango dela bertako bainu denboraldiak irauten duen bitartean. Egunean bi joan-etorri egingo ditu: lehenengoa 16:00etan irtengo da Ugarkaldetik (azoka 16:05, Korreos 16:10, Kasablanka 16:15), eta 16:30etan itzuliko da Usakotik. Bigarrena 19:30etan irtengo da Ugarkaldetik, eta 20:00etan etorriko da bueltan (Kasablanka 20:15, Korreos 20:20, Errekalde 20:22, Ugarkalde 20:30). Udalaren asmoa da ekainaren 12an jartzea martxan zerbitzua.

USAKOKO BAINU DENBORALDIA

EKAINAREN 10etik IRAILAREN 10era

Ekainaren 10ean hasi eta irailaren 10erarte luzatuko da aurten bainu denboraldi ofiziala Usakon. Horrek esan nahi du, hiru hilabete horietan sorosle zerbitzua egongo dela Usakon, egun guztietan (15:00-20:00). Aurten, gainera, eguraldi iragarpenen arabera, jende asko batzea aurreikusten den egunetan zerbitzua indartu egingo du udalak, bigarren sorosle batekin.

Zubillagako berritze lanen 2. Faseko lanak hasi dira

Zubillagako 45 eta 54 zenbakien arteko urbanizazioa berrituko da fase honetan. Pilotaleku ingurua, ermita aurrealdea eta auzo-etxerako sarrera ere hartuko ditu bigarren fase honek. Oinezkoen bideak berritu, berdeguneak txukundu eta errepide nagusiaren ondoko espaloia aldatuko da. Artzamedia eraikuntza enpresa egiten ari da lanak 103 mila euroko (BEZ kanpo) aurrekonturarekin, eta lau hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.

Olakuako 1. Areako irisgarritasun lanak lizitaziora

Olakuako 7-8-9 zenbakien inguruko urbanizazioa berritu eta irisgarritasun baldintzetara egokitzeko lanak lizitaziora atera ditu udalak. A2B Arkitekto Bulegoak idatzitako proiektuaren arabera, lau hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko. Aurrekontua, 199.545€ (BEZ kanpo).

Herriko 'Zarata Mapa' enkargatu du udalak

AAC Acústica + Lumínica enpresaren aurrekontua onartu du udalak herriko hots-kutsadura maila neurtzeko. Herriko gune eta jarduera ezberdinak hartuko ditu kontuan azterlanak, eta gaueko aisialdiko zaraten inguruko azterketa espezifiko ere egingo da. Aurrekontua, 15.800€ (BEZ kanpo).

Aldakiñoko bidexkan argiteria jarriko du udalak

Hainbat herritarren eskaria aintzat hartuz, Olakua eta San Martin auzoak lotzen dituen Aldakiño basoko bidexkan argiak jartzea erabaki du udalak, segurtasuna areagotzeko asmoz, udazken eta negu partera begira, batez ere. Guztira 3 metroko 16 argi poste jarriko dira bidean zehar.

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15


16-17 urte arteko gazteen udalekurako dirulaguntza

Hondarribiko Betti Goitti euskara elkarteak, bertako eta Irungo udalekin batera 16-17 urteko gazteentzako udalekuak antolatu ditu abuztuaren 12tik 26ra. Eta kontuan hartuz adin horretako gazteentzako udaleku eskaintza oso murrizta dela, udaleko Gazteria sailak ekimena babestea erabaki du eta gazte bakoitzari (gehienez jota 15) 200 euroko laguntza ematea onartu du (matrikulak 350€ balio du). Begiraleen artean bi oñatitarr daude (www.bettigoitti.eus).

'Interneten ere lehen hitza euskaraz' kanpainarekin bat



PuntuEUS Fundazioak, Kontseiluak, CodeSyntaxek eta Ikastolen Elkar- teak abian jarri duten kanpainarekin bat egin du udalak. Gure nabigatzaileak eta telefono mugikorrak euskaraz konfiguratzeko da helburua, euskararen pisu espezifiko handitzeko Interneten. Horretarako, gure gailuak automatikoki eta modu errazean euskaratzen dituzten plugin eta aplikazio bana (doakoak) jarri dute sarean, eta Oñatiko udalak leiho bat zabaltu du bere webgunean kanpainaren berri emanez, eta lotura zuzena eskainiz aplikazio horietara.



CHAVELA
dokumentala
Ekainak 23,
kultur etxea,
19:00



RARA
pelikula
Ekainak 30,
Kultur etxea,
19:00

ZINEGOAK jaialdiko bi Film eder Oñatin

Ekainaren 28an ospatzen den sexu askatasunaren aldeko nazioarteko egunaren harira, *Zinegoak* jaialdian (Bilboko gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia) aurkeztu diren maila handiko bi film ikusteko aukera izango dugu Oñatin, udaleko Berdintasun sailaren eskutik.

Alde batetik, aurtengo Berlinalean estreinatu eta finalisten artean izan zen 'Chavela' dokumentala emango dute ekainaren 23an. Jende askorentzat ikono eta eredu den Chavela Vargas musikariaren bizitza, luze eta sakon jorratzen duen dokumentala.

Askok ezagutzen dute alkoholak markatutako bizitza hori, ondoren aurre egin eta gaintitu zuena. Baina gutxi ezagutzen dute bere sexu orientazioagatik eta garaiko emakumeek bete behar zituzten arau sozialak ez betetzeagatik baztertuta izan zen Chavela Vargas emakume lesbiana.

Dokumentalaren ardatza ez da bere amodio bizitza, nahiz eta ez den alde batera uzten. Abeslariaren zenbait bikotekideek parte hartzen dute, eta horri esker, ematen den ikuspegia zabalagoa da. Eta, bide batez, hobeto

ezagutzeko aukera ere ematen digu.

Chavelak berak lehen pertsona eta bera ezagutzen zuten hainbat ahotsek kontaturik, dokumental entretenigarri, dibertigarri eta hunkigarri honek publiko orokorraren interesa piztuko du eta emakume lesbianak ikusarazteko tresna izango da aldarrikapen egun honetan.

Bestalde, 'Rara' film luze txiletarra aurtengo errebelazioetako bat da. Pepa San Martinen zuzendaritzapean, Horizontes Latinos saila irabazi zuen Donostiako zinemaldian eta arrakasta handia lortzen ari da mundu osoko jaialdi ezberdinetan. Eta ez bakarrik publiko espezializatuaren artean, izan ere areto komertzialetara hurbildutako ikusleak ere txunditu egin baititu.

Familia kuttun honen istorioaren bidez, bi emakume eta horien alabaren bizitza ezagutuko dugu xume eta gozoki. Protagonistaren begietatik ikusiko dugu 13 urteko nerabea. Berarentzat bere ama beste emakume batekin bizitzea ez da arazo bat, nahiz eta bere aitak ez duen berdin ikusten.

Film egokiak biak ere, sexu aniztasuna ospatzeko eta aldarrikatzeko.

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheak • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

ERABAKITZEKO PREST

Ekainaren 10ean Bilbora joateko deia luzatu du Gure Esku Dagok



Bilboko Euskadi eta Eliptika plazak lotuz, inoizko galdera ikur handiena osatu nahi da ekainaren 10ean (17:30), eta bertan aurkeztuko da Herritarren Ituna, erabakiaren bidean ate berriak zabaltzeko jaio den tresna. Oñatiko Gure Esku Dago plataformak autobusa antolatuko du Bilbora joateko, eta dei egiten die herritarrei ekimenean parte hartzera.

Autobus txartela eta Bilboko ekitaldirako konpromiso txartelak eskuratu ahal izateko mahai informatiboak jarriko ditu Oñatiko GEDk ondorengo egun eta lekuetan: ekainaren 1ean (19:00-21:00) Zazpibidietako bidegurutzean; ekainaren 2an (18:30-21:00) Foruen plazan, eta ekainaren 3an (12:00-14:00) Foruen plazan.

Guardia Zibila armagabetuko da aurtengo Fan Hemendik egunean

Ekainaren 17an izango da aurtengo Fan Hemendik eguna, eta bertan Guardia Zibilaren armagabetzea gauzatuko omen da, antolatzaileek jakinarazi dutenez. “Apirilaren 8an ETAk bere armak herriari itzuli ondoren, Guardia Zibilaren txanda iritsi da. Eta hori ondo egiten dela egiaztatzeko, Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko Ram Mannikkalingam oñatin egongo da. Hainbat iturriren arabera, torturatzeko eta erahiltzeko erabili dituzten fusilak, bainerak, elektrodoak, poltsak edota kare bizia entregatuko dute”.

Hori ospatzeko hainbat ekitaldi egongo dira egun guztian zehar: bake artisauen azoka (11:30), poteoa (12:00), bazkaria (14:30), kontzertua (19:00 txosna gunean (The Sinners), manifestazioa eta armagabetze ekitaldia (20:00), kontzertuak (22:00) txosna gunean (Cadafistes Brothers, Erokomeri eta Trapu Zikinak). Bazkarirako txartelak Arrano, Ongi eta Ona tabernetan daude salgai.



‘Autokarabana Melillara’ ekimenari buruzko hitzaldia eta pintxopote solidarioa errefuxiatuen alde

Uztailaren 14tik 22ra Melillara joango den ‘Mugak Zabalduz’ ekimeneko kide diren Jose Masa eta Txefo Mendezek hitzaldia emango dute **ekainaren 6an**

Antixena Gaztetxean (19:00). Iaz Grezian egin zuten bezala, aurreko Melillara joango dira errefuxiatuek bizi duten egoera salatzen. Hotz Oñati taldeak antolatu du hitzaldia, eta aukera ona izango da karabanan parte hartu nahi duten guztientzat, edo Melillako egoeraz informatu nahi dutenentzat. Bestalde, **ekainaren 9an** errefuxiatuen aldeko Pintxopote Solidarioa antolatuko du Hotz Oñatik herriko plazan, 19:00etatik aurrera. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



Moda desFilea egingo dute ekainaren 2an Ramon Irizar plazatxoan

Herriko zenbait dendariren ekimenez, moda desfilea egingo da ekainaren 2an (19:00-21:00) Ramon Irizar plazatxoan. *Klau, Luar, Maibi, Beroki, Laket, Bellotza, Kuttun* eta *Beloki* komertzioek antolatu dute ekitaldia, udalaren laguntzarekin.



Duela bi urte Mendikokalen egin zuten moda desfille arrakastatsua





**Txantxiku
Ikastola**



50

Guraso eta tutoreen arteko bilerak

Ekaino

Al	Ar	Az	Og	Or	Zo	Dom
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

2017-2018

Ekainak 27

0-1 urte

Ekainak 28

2 urte

Bilerak 18:00etan

*Oharra: zaintza zerbitzua izango da
bilerak irauten duten bitartean*



ERKIDE



**Konfiantzaren
Pedagogia**

Musika eskola eta musika bandaren arteko lankidetzaren fruituak



Oñatiko musika bandak badu etorkizuna. Maiatzaren 7an Santa Anan eman zuen kontzertuan 16 eta 18 urte arteko zortzi gaztek egin zuten debuta: Julen Agirre Lizaralde (tronpeta), Anartz Badiola Etxezarreta (fliskornioa), Haritz Agirre Galdos (tronboia) Luis Txintxurreta Intxausti (tronpeta), Danel Iñurritegi Guridi (saxo altua), Markel Bellido Zubia (saxo altua), Eneko Agirre Erostarbe (saxo altua) eta Beñat Markinez Zelaia (klarinetea). Hilabete batzuk lehenago, Danel Casais Sanchez (perkusioa) ere egin zuen estreinaldia. Beraz, gaztetu ederra hartu du Iñazio Ibarrondok zuzentzen duen taldeak. Ildo horretan, azpimarratu eta balioan jarri behar da Jose de Azpiazu musika eskolak egiten duen formazio lana.



Garay lantegiaren 150 urteko historia jaso du Jose Antonio Azpiazuk



1886an hasten da Garay lantegiaren historia Oñatin, Aretxabaletako Bedoña auzoko Cornelio Garayk gure herrian poxpolo lantegia jartzea erabakitzen duenean. Ordutik 150 urte igaro dira eta, orain, liburu batean (*Los Garay. Una saga industrial en Oñati durante 150 años*) jaso du Jose Antonio Azpiazu historialariak, Garay familiaren eta, bereziki, Jose Luis Creixell Garay (1924-2015) zenaren gogoia betez.


Garaytarren poxpolo fabrika pizgarri inportantea izan zen gainbeheran zetorren orduko ekonomiarentzat, eta azpimarratzekoa da, gainera, emakume asko enplegatu zituela. Urte oso onak bizi izan zituen XIX. mende amaieran, harik eta gobernuak poxpoloen industria monopolizatzea erabaki zuen arte. Kolpe gogorra izan zen Oñatiko lantegiarentzat, baina Cornelio Garayren eta ondorengo belaunaldien ekintzailetasuna tinko mantendu zen, eta, hala, 1921ean aterkiak egiteari ekin zioten, eta urte batzuk geroago automoziorako hodiak egiten hasi ziren. Aipagarria da, zentzu horretan, Talgoaren lehen estruktura Oñatin egin zela, eta Lube motorarentzako osagaiak ere bertan egiten zirela, besteak beste.

Garbi dagoena da, Garaytarrek unean uneko egoera eta beharretara egokitzen jakin izan dutela. Garai batean 700 langile izatera iritsi zen, eta, beraz, esan beharrik ere ez dago, Garay lantegiaren historiak leku inportantea duela gure herriaren azken 150 urteko historian. Txokolateixan eskura daiteke liburua 10€-tan.

Jubilatuaren Astea ospatuko da ekainaren 19tik 25era

Ekitaldiz beteriko astea izango dute Pake Lekun. Astelehenean Juan José Sagarzazuren hitzaldia (*El sexo a partir de los 60*), Santa Ana aretoan (17:30); asteartean Aloña abesbatza eta musika eskolako ikasleen kontzertua Santa Anan (18:00); asteazkenean ibilaldia eta dantzaldia (9:30); ostegunean bingo berezia Pake Lekun (17:30); ostiralean txokolate jana eta dantzaldia Pake Lekun (17:30). Astea borobiltzeko, igandean (ekainak 25) Jubilatuen Eguna ospatuko da (omenaldia, bazkaria...)

Narrastiak eta anfibioak ezagutzeko irteera Arantzazun



Igandean, ekainak 4, Aizkorri-Aratz natur parkeko narrasti eta anfibioak ezagutzeko irteera egingo da Arantzazun (10:00), Gipuzkoako Parketxe Sareak antolatuta. Ander Izagirre adituaren eskutik, espezie ezberdinak bereiztu, eta beraien ekosistema hezeak eta babeslekuak ezagutzeko aukera egongo da. Prezioa, 5€. Izena emateko: 943782894 / 699335183 edo arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net

ARAUAK ETA GOMENDIOAK

kiroldegiko instalazio eta ekpamenduen erabilera egoika bermatzeko



Argazkikoak bezalako panelak jarri dituzte kiroldegiko gune ezberdinetan

Kiroldegiko zuzendaritzak komunikazio kanpaina bat jarri du abian, bertako instalazioen erabilera egokia bermatzeko asmoz. Ondoko argazkietan ikusten den moduan, hainbat kartel, poster eta pegatina jarri dira kiroldegiko gune ezberdinetan, erabiltzaileei zuzendutako arau eta gomendioekin.

Ildo horretan, erabiltzaileei gogorarazten zaie eskubidea dutela, noski, kiroldegiko instalazioak eta ekipamendua erabiltzeko, baina baita betebeharrak ere, eta horiek errespetatzea ezinbestekoa dela zerbitzuaren erabilera egokia bermatzeko.

Alde batetik, kiroldegiko erabilera arau orokorren berri ematen da paneletan, eta, gero gune jakin batzuetan (igerilekua, fitness gela, rokodromoa, boulderra...) modu egokian eta segurtasunez ibili ahal izateko arauak eta gomendioak ematen dira.

Panelak jartzeaz gain, kiroldegiko erabiltzaile-kolektiboei (ikastetxeak, Aloña Mendi, Eskola Kirola, ikastaroak...) ere zuzenean emango zaie honen guztiaren berri.

Bizkarreko osasuna hobetzeko tailerra

Ekainaren 10ean, (10:00-11:30) bizkarraren osasuna hobetzeko tailerra egingo da kiroldegiko fitness gelan. Aurrez eman behar da ize-na gimansioan bertan.

Uda kirol kapainan lekua dago oraindik

Ekainaren 26an hasiko den uda kirol kapainan lekua dago oraindik hainbat zerbitzutan. Informazioa eta izen-ematea kiroldegian.

Eskubalo txapelketa

Ekainaren 10ean goizez (9:00-14:00) eta arratsaldez (15:00-20:00) XI. Korpus txapelketa jokatu da Zubikoan Euskadi eta Nafarroako Infantil mailako selekzioekin.

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON EOI ESKOLA POLITERMIKOA

Izen-ematea

Ekainak 5tik 16ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
- Administrazioa eta Finantzak - Zuzendaritza Idazkeritza - Salmenta Kudeaketa - Nazioarteko Merkataritza	- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizabazak - Automatizazioa eta Robotika Industrial - Sareko Informatika Sistemen Administrazioa - Fabrikazio Mekanikoko Diseinua - Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa - Mekatronika Industrial

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

LABORAL

MONDRAGON UNIBERTSITATIA

Fp

HETEL

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 • 664 277 592

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala
ZUZENDARIA: Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA: Aratz Losada
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza
eta Udal Euskaltegia
INPRIMATEGIA: Gertu
Tirada: 5.500 ale
Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus
Publizitatea: publi@onati.eus
Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Natxo Santos

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.: 943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

HASTEKO, BOST!

*Xabi Etxebarria eta Ekiñe Arkauz,
Gaztetxeko asanbladako kideak.*

Iada bost urte pasatu dira Oñatiko Igazteak antixenara sartu eta honi bizia ematen hasi ginenetik. Bost urte, hainbat urtetako borroka eta grinari erreleboa hartu eta herriari kolore eta alternatiba ezberdinak eskaintzen hasi ginenetik.

Urtarrileko pailazoak, tailerrak, herriko eragile ezberdinen mugimenduak, hainbat estilotako kontzertuak, autoformakuntzak, mus txapelketak, parrandak, hitzaldiak... Milaka izan dire urte hauetako ekintza, anekdota eta bizipenak. Milaka bidean ezagutu garen lagunak.

Honek ospakizun berezi bat merezi duela uste dugu, beraz, ospatu egingo dugu! Urte amaieran zehar egitarau bereziak burutuko direla jakinarazi nahi dizuegu. Autogestioan, harremanetan, dibertsioan, formakuntzan, parrandan... oinarritutako egitarau bereziak. Beraz, gorde ezazue urte amaiera Oñatiko gaztetxeak bost urte bete dituela ospatzeko!

Bestalde, proiektu hau aurrera eramateko beharrezkoa izan den inplikazioa eta talde lana eskertu nahi dugu. Beraz, asanbladaren izenean, eskerrik asko proiektu honen parte zareten guztioi, gaztetxeko ekintzetara hur-

bildu zaretenoi, barran orduak sartu dituzuen lagunei, babesa eman diguzuen guztioi, "HERRI BAT, GAZTETXE BAT!" oihukatu zenuten guztiei.

Amaitzen joateko, Errekaleorreko lagunak jasaten ari diren erasoak salatu nahi ditugu, eta beraiekiko elkartasun beroena adierazi. Guk ere argi daukagu, errekalear bizirik!

Azkenik, Tiago gogoratu nahiko genuke. Hainbat urtetan gaztetxearen aldeko borrokan erakutsi zenuen kemen eta indarrak guregan dirau.

**AURRERA GAZTETXEAK
ETA AURRERA ANTIXENA!**

NAHIKOA DAI

*Javier Galarza, Oñatiko EAJ-PNVren
presidentea*

Beste behin ere Batzokia eta Oñatiko kaleak EAJ-PNVren aurkako irainez jositako kartel eta pankartez beteta agertu dira. Horietan, beste hainbat irainen artean, "zuek zarete erraustuko dugun lehen zaborra" "nazkagarriak" edota "espainolak" irakur zitekeen. Beti bezala, pintadak gauez egin dituzte eta egileek txano atzean ezkutatzen zuten haien burua, baina lekukoek, inolako zalantzarik gabe, Ezker Abertzalearen inguruko kide gisa identifikatu dituzte. Asteburuko

gertakari hauek, ez dira, beraz, kontrolik gabeko ekintzak izan eta ondorioz, inork ezin du bere erantzukizuna saihestu.

"Garai berrietan" bizi garela esaten dugun arren, bereziki Oñatin behin eta berriz errepikatzen diren horrelako ekintzek bistako egiten dute egileek duten etika zein giza eskubideen aldeko errespetu falta ikaragarria. Horrenbestez, ekintza horiek onartu edo gutxiestea ez da zilegi, ezta Ezker Abertzalearengandik ere, eta are gutxiago, ondoren, alderdiaren eskubideak erasotzen direnean gainerakoek babesa lortu nahi badu. Ezin dute aldi berean izan "burdinazko ukabila eta kristalezko masailezurra".

EAJ-PNVtik, ordea, Ezker Abertzaleak edo SAREk hala eskatu dutenean, giza eskubideen aldeko mozioak babestu ditugu, baita hauek zapaltzearen aurkakoak ere. Hala eta guztiz ere, haien aldeko inork, ez alkateak, ezta EHBilduren udal gobernuako kide bat berak ere, gaur arte, ez dute elkartasun keinurik azaldu edo pankarta horiek berehala kentzeko agindua eman eta jokabide hori benetan penagarria iruditzen zaigu.

Urte asko daramatzagu horrelako ekintzak jasaten, baina Oñatin errespetuaren aldeko urratsak eman nahi baditugu ezin ditugu presioan oinarritutako metodoak onartzen jarrai-

**ARRIZABALAGA**
Aroztegia

**PAKITA**
Altzariak



Bereza Ind. 10 Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 14 64 Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKAK • NEURRIEN ENPATRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia



Ostinal, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia
eguneko labean egiten

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

tu, bide horrek, herritarrei libre eta demokratikoki adierazteko beldurra besterik ez baitie sortzen. Belaunaldi berriei inposaketan eta gorrotoan oinarritutako ondare kulturala utzi nahi ez badiegu beharrezkoa da esatea: nahikoa da!

PERTSONA XUMEEN GARRANTZIA ETA FRAGRANTZIA

Iñaki Zubeldia

Pertsona xumea ulertzen dut nik eguneroko bizitzan burrunba handia ateratzen ez duena, inguruan oso eza-guna eta oso goraipatua ez izan arren; bere eginkizunak ondo eta askotan ia-ia perfektu egiten dituen, harrokeriarik eta handizkikeriarik azaldu gabe. Besteekiko enpatia berezia izaten dute pertsona hauek eta gauzak ondo egitea, sinpatiaz eta xumetasunez egitea, berezkoa dutela dirudi, horrelaxe ateratzen zaiela. Eta askotan pertsona horietako bat galtzen duzun arte ez zara konturatzaren jokabide horren baloreaz eta handitasunaz.

Eta horixe gertatu zait niri ere Oñan

tiko mutil jator horrekin. Pentsatu noraino izango zen umila eta apala bere izena ere ez dakidala eta hala ere nire bizitzan arrasto handi eta garrantzitsu bat utziko du betirako. Aloña Mendi elkarteak duen taberna-jatetxean lan egiten zuen, kamarero edo zerbitzari. Eta beti miresten nuen haren prestutasuna bezeroak atenditzeko garaian, haren goxotasuna zure mahaira etorri eta zure eskariak entzuteko garaian, haren zerbitzurako jarrera zerbait falta

zitzaizunean.

Duela pare bat egun jakin dut gazte xume eta jator hori hil egin dela 30 urterekin. Eta bere izenik ez jakin arren konturatu naiz izugarri miresten nuela bere xumetasunean eta harrokeriarik gabeko bere handitasunean. Pena handi bat eman dit gazte jator horren heriotzak eta nire omenaldi xumea hauxe izango da, lau haizeetara zabaltzea pertsona xume horien garrantzia eta fragrantzia.

LAU SARI EKARRI DITU GANBARAK TOURS-etik

Beste behin ere bere goi maila agerian utzi du Ganbara Abesbatzak, joan den asteburuan Tours-en (Frantzia) jokatu den nazioarteko lehiaketan lau sari eskuratuta. Gran Prix-eko hirugarrena (lehen hutsik geratu da); Errenazimendu garaiko obretan bigarren saria (lehen hutsik); obra frantziar baten interpretazio onenaren saria; eta zuzendari onenarena Aitor Biainentzat. Pozik daude egindako lanarekin. Zorionak!



HAURREN DANBORRADAN PARTE HARTZEKO. Irailaren 16an egingo den Haurren Danborradan parte hartu nahi duten neska-mutikoei (2008 eta 2009an jaiotakoek) ekainaren 16a baino lehen eman behar dute izena. Kultur etxeko harrieran daude orriak eta postontzia. Bestalde, 2007an jaiotakoek dantzan irteteko aukera izango dute. Interesatuak izena eman behar dute hilaren 16a baino lehen.

Aranizazuko Arria

San Martin

Adosatuak Kurtzekua

Kurtzekua

ZATOZ INFORMATZERA!!

italde

www.italde.com

Ramon Irizar kalea
T. 943 78 27 07

Langile-mugimendua hedabideetan

Maiatzaren lehena eta Langileen Nazioarteko Eguna uztartuta agertzen zaizkigu, langileriaren borrokak hedabideetako lehen orrietan toki nabarmena hartzen baitu urtero. Aurten ere horrela izan da, nola ez, ikusitakoak ikusita ez ikusiarena egitea faltsukeria larrian erortzea izango litzateke eta. Kolore guztietako sindikatu eta langileak kaleetan barrena gaitzesgarri direnak salatzen eta defendagarriak defendatzen ikusi baititugu.

Nolanahi ere, hedabideen lehen orrietatik filmetako lehen planoetara jauzi egitea otu zait hain justu, ohiko esapidetik alde egin guran edo, beste ikuspuntu bat ematearren eta, bide batez, nabarmendu egutegian odolaren kolorez azaltzen zaigun BAT gorri erreibindikatzailea. Uste

Agustin
Goenaga



baitut zineak, orokorrean, maisuki islatu dituela gizateriaren kontra eginiko gehiegikeriak. Horri lotuta, makina bat film dira langileria eta klase borroka aintzat hartu dituztenak lotura sakon bezain miresgarriak lortuz. Nork ez du gozatu Charles Chaplinen **"Modern Times"** (1936) filmarekin? Chaplinek gogor kritikatu zuen garaiko industria produkzio ereduak, non behargina makinaren engranajeen hortzetan kateatuta aurkeztu zigun; irudi ikonikoa gaur egun ere, indar izpirik galdu ez duena. Nola ez gogora ekarri **"Novecento"** Bernardo Bertolucciren filma edota Fritz Lang-en **"Metropolis"** zeinetan langileen miseriak eta eskabide sozialak modu gordinean eta maisuki agertzen diren.

Film berriagoetara etorritz, ezin ahaztu **"Los lunes al sol"** (2002), sari potoloak irabazi zituen lan xume bezain bikaina; Fernando León de Aranoak langabeen egoera latza jartzen digu mutur aurrean. Hor ditugu Ken Loach zuzendariaren **"Bread and Roses"** (2000) emigrante mexikarren istorio garrantz bat, eta **"I, Daniel Blake"** (urrezko domina iazko Cannesen). Azken horrek egungo errealitatera ekartzen gaitu: etxegabetzeak eta txirotasun energetikoak, besteak beste; denuntziaren eta konpromisoaren baloreak nabarmentzen ditu era oso artetsuan.

Zerrenda ez luzatzearren, eta jakingurak bultzatuta noski, Maiatzaren bateko telebista egitarauari begira jarri nintzen; ezustekoren bat? Ez, jakina, sorpresa on gutxi ETBn. Gau aproposa, bai horixe, aipatu ditudan moduko pelikula edo antzeko dokumentalak emititzeko baina, nonbait, "konkis"zaleen abenturak, eta euskal katean ablazioari buruzko emititu zen filma garrantzitsuagoak ziren. Beste aukera on bat alferrik galduta.

Esan gabe gelditzen den hori

Zenbat gauzek beldurtzen ote gaituzte... nondik hasi, nola esan. Kanpora atera behar dela guztia, hori badakigu. Baina, askotan, ez gara behar bezain ausartak, eta gure beldurrek gure barruan jarraitzen dute. Gizakiak bere humanitatea aspaldi galdu du teknologia berrien mesederako. Hala ere, gure izatea galdu izanak ez gaitu behar haina beldurtzen. Humanitatea bezalako gauza subjektiboek, filosofikoek ez dute garrantziarik ez tokirik gaur eguneko munduan. Horregatik beldurtzen gaituzte hainbat gauzek; gizaki modernoak

Amaia
Aranzeta



ezerezari ere, beldur diolako. Eta, horregatik gelditzen dira hainbat gauza esan gabe: gizatiar den eta egiten gaituen orok beldurtzen gaituelako.

Beldurtu baino, izutu egiten gaitu gai batzuei buruz hitz egiteak. Zaila egiten zaigu hitz egokiak aukeratzea, barruan bor-bor dugun hori adieraztea. Eta, gainera, adorea batzen dugunean esan beharreko hori esateko, ez zaigu ondo ateratzen edo, ez behintzat espero genuen bezala. Eta orduan, hurrengo batean, zera uste dugu: idazteak, esateak,

askatzeak beldur garen hori, ez duela merezi. Hau dela eta daramatzagu gure sorbaldetan esan gabe gelditu diren hainbat kontu; egunero, zama handiagoa egiten. Egunero, bihotzak txikiago bilakatzen.

Aurreko batean lagun batek esan zidan traketsak garela zentzu batzutan, gai batzuekiko. Beldur ez omen gara, trakets baino. Momentu garrantzitsuetan maiz, ez gara ondo adierazten eta nire ustez, hau beldurraren eragina ere bada, gure barruko mamuak askatzean dardaraz esan ohi dugu-eta, sentitzen dugun guztia. Dardaraz, gizaki garelako. Beldurrez, gizatasuna galdu dugulako eta, egunerokotasuna onartzen ez. Esan gabe gelditzen den guzti hori esango bagenuke, gizaki edo gizartiarragoak izango ahal ginateke?

**ETXiAN**
Onatiko inmobiliaria berria
Donostian etxea prosteko ere,
aukera onenen informazioa eta laguntza

*Etxebizitza edo
lokal bat saldu nahi
al duzu Oñatin?*

Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net
Etxian 

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

> LAGUNAK

- Arazerixan -

Lagun bat daukanak altxor bat omen dauka...ez da gezurra. Benetako lagunak esku bakarreko behatzekin kontatzen omen ditugu... hona lagunaren inguruan errepikatu ohi ditugun esaldietako bi.

Lagun harremanak beharrezkoak zaizkigu gizarteratze osasuntsu bat edukitzeko, heldze psikologiko eta emozional egoki baterako. Txikitatik hasten gara lagunak egiten: guraso taldetako beste umeekin, jolas parkean, familiarrean, ikastolan, ... "berdinekin" hazten hasten gara. Gero, 10 urtetatik aurrera, haurrak lagunekin bakarrik(guraso gabe) ateratzen hasten dira gure herrietako kaleetan zehar. Adin horren inguruan, edo pixka bat aurrerago, taldea itxi eta koadrila bihurtzen gara. Koadrilatik sartu edo ateratzea gai serioa bilakatzen da kasu askotan identitatea eta pertenezkoa baitaude jokoan. Nerabezaroan gainera gurasoek indarra galtzen dute lagun taldeak hartzen duen garrantziaren aurrean. Orokorrean talde handian mugitzen gara, nahiz eta 2 edo 3 lagun izaten ditugu gertuago taldearen barruan, lagun-minak dira hauek. Lagun talde gehienak mutil edo neskez soilik daude osatuak, mistoak ere badira halere. Mistoetan energia orekatu asko aurkitu izan dugu taldeetan. Koadrila batzuk 30 pertsonaz osatutako taldeak dira, eta badaude 8 edo gutxiagokoak ere. Lehen hezkuntzako garaietatik sortuak batzuk, nerabezaroan aldatetako bizi izaten dituzte talde-kideri dagokion kasu askotan. Lagun talde bakoitzak kultura-ideologia, arau eta lidergo estilo bereizgarriak izango ditu. Elikadura iturri handia bihurtzen dira beraz lagunak gure bizitzaren garapenean, eta eragin handia izango dute guregan.

Aisialdiko hezitzaile garen heinean, gure lan esparrutik haur eta gazteak elkarrekintzan diren bezala ikusteko aukera daukagu, nolabait era naturalean harremanetan. Hori dela eta, adingabea eta bere koadrilaren inguruan daukagun ezagutza, eta eragiteko ahalmena, oso handia dela askotan errepikatzen dut nik. Eta hori, beste hezitzaileengatik, irakasleengandik adibidez, bereizten gaituen alderdi bat da.

Lagunik ez daukaten neska eta mutilak ikusten ditugu, eta bakardadea sentiarazten digute. Gogorra da bakarrik sentitzen den haur edo gazte baten aurrean egotea, baina laguntzeko, sentitu dezakegun penatik alde egin beharrean gaude, horrek gain-protektziora eraman gaitzakeelako, eta horrek laguntzea oztopa dezake. Konfiantzaz, maitasunez, pazientziatzaz eta inteligentziatzaz (bere kontzeptu zabalenean) harremanak beharko gara haur edo gazte horrekin, hezitzaileok bere errealitate horretan testuinguru gizarteratzaileak sortzeko.

Talderik ez izateaz gain, gaizki harremanetan diren neska mutilak ezagutzen ditugu, baita bullying edo tratatu txar egoerak ere, tratatu txarrak bere esanahirik zabalenean. Horrelako kasuetan zirkulazioaren zehaztasuna behar izaten dugu, behar den tokian moztu eta leku aproposan josi eta desinfektatzeko. Talde harremanak ezagutzen dituenak badaki onak eta txarrak, erasotuak eta erasotzaileak, dikotomiak askotan motz geratzen direla talde dinamika bat ulertzeko. Hezitzaileon lana haur eta gaztetxoaren harremanetan behatzen dugunaren inguruan neurritz esku-hartzea da. Behar denean entzun, ondo entzun, eta behar denean hitz-egin. Hori bai, esan beharrekoa ondo mamitu ondoren, eta nola ez ere gertaera oro ikasgai bihurtzen saiatu.

Gure txikiei lagunak ondo zaintzen erakutsi behar diegu, lagunak bakoitza ondo zaindu behar gaituzten tamaina berberean, merezi du eta. Eta horretarako gu izan beharko gara eredu, zenbaitetan txikiei guk egiten ez duguna eskatzen baitiegu.



Jon Ormaetxea. Gaztelekuko koordinatzailea.

EKAINEAN...

GAZTELEKUAN: [11] Kontzertua (19:30): Berri Txarrak, Burning Heads, The Skippers. Sarrera guztiak agortuta. [16] Kontzertua (22:30): Maider Zabalegi. Sarrera 8€. [25] Kuboko futbol txapelketa: **KUBOAN:** [2] 5. mailakoen udako bilera (18:00). **PLAZAN:** [22] Ludotekako eta Bertakotze programako azken festa (17:30-19:30). **ITURRIGORRIN** [28-29-30] Gaztekonkis.

UDANAKO XII. IGOERA / EKAINAK 24



Jon Casais

"Nire lehen Udanako igoera izango da, eta ilusio berezia egiten dit"

Jon Casais, 1994an Espainiako txapelduna izan zen piloto oñatiarra, konpetiziora itzuli da, hamazazpi urtez zirkuitoetatik kanpo egon ondoren, eta bera izango da Udanako Igoerako protagonista nagusietako bat. Euskadiko Rally Txapelketa da bere helburua aurtur, baina etxeko karrerak ilusio berezia egiten diola aitortu digu.

Estauko pilotorik onenetakoa izan zen 90eko hamarkadan. *Citroen ZX Kopa* irabazi zuen 1994an, Euskal Herriko rally txapelduna izan zen, Europa mailako probak irabazi zituen, *Citroen* markako pilotu ofiziala izan zen, eta Kataluniako rallyan (munduko txapelketakoa) parte hartu zuen. Izugarritzko palmaresa osatu zuen bost urteren buruan, baina 1999an dena utzi beharrean izan zen, gogoratzerik ere nahi ez duen arrazoiengatik. Baina, iaz, zirkuitoetara itzultzea erabaki zuen Renault Megane F2000 batekin.

Zer dela eta itzuli zara 17 urteren ondoren?

Iaz omenaldi txiki bat egin ziguten Alcañizen, bertako Sari Nagusiaren 50. urteurrenean. Nik birritan (1994 eta 1995) irabazi nuen proba hori, eta

hantxe berotu zidaten burua. Egia esan, beti izan dut harra barruan, eta pentsatu nuen orain zela momentua, bai familia eta baita lan aldetik ere nahikoa egonkortuta nagoelako.

Zein helbururekin itzuli zara?

Garai bateko sentsazioak berreskuratu eta disfrutatzea da helburua. Errealista izan behar da, 17 urte ez dira alferrik pasa, baina ni oso lehiakorra naiz, eta ziur egon irabaztera aterako naizela. Euskadiko Rally txapelketa da nire helburu nagusia, baina, horrez gain, ralliesprint eta igoera batzuk ere egingo ditut, tartean Udanakoa.

Euskadiko rally txapelketan ez zara oso ono hasi.

Ez. Markinan jokatu zen aurreneko proba, eta ezin izan nuen parte hartu arazo mekanikoak tarteko. Danera 5 karrera dira

eta lauk puntuatzen dute. Beraz, ezin dugu berriro huts egin. Dena den, baikor nago, eta aurrean amaitzea espero dut.

Konpetentzia handia al dago?

Bai. Azkar dabilen jende asko dago Euskadin: Barrenetxea, Castro, Txus Jaio, Antxustegi, Alustiza... Lau gurpiletako trakzioa duten Mitsubishiak kotxe hobeak dira baldintza jakin batzuetan, baina gure kotxeak beste abantaila batzuk ditu... Lehiatua egongo da.

Renault Megane F2000 batekin ari zara zu. Nolakoa da?

Modelo horretan fabrikatu den auto bakarra da. Motorrak 2000cc., 16 balbula eta 272 zaldi ditu, eta atmosferikoa da. Aurreko trakzioa du. Karrozeria tubularra dauka eta ia dena zuntzezkoa da. Kotxe ona da, kurbetan azkarra da eta balaztatze ona dauka. Nire gustura jartzen ari naiz kotxea poliki poliki, eta espero dut gerra ematea.

Nola ikusten duzu Udanako Igoera? Aurrean ikusiko al

“

Euskal Herriko rally txapelketa da aurtengo nire helburu nagusia

Baldintza normaletan nire autoa ez da Udanako Igoera irabazteko, baina errepidea bustia baldin badago, gerra ematen saiatuko naiz

UDANAKO IGOERA

Udana automobilismo taldeak antolatuta, ekainaren 25ean jokatu da Udanako XII. Igoera, Euskadiko txapelketarako puntuagarria. Urtero bezala Euskal Herriko pilotu onenak ariko dira; tartean hainbat oñatiar.

Goiz partean (10:30-12:30) autoen egiaztapena egingo da plazan. Eguerdiko 13:15ak aldera autoak Udanaruntz abiatuko dira, eta 15:00etan hasiko da lasterketa.

zaitugu.

Baldintza normaletan, zorua lehor badago, ezinezkoa da Aitor Zabaletari aurre egitea, ezta *Silver Car* motakoei ere. Turismoen artean aurrean ibiltzea izango da helburua. Baina errepidea bustita baldin badago, ondo molatzen naiz, eta gerra ematen saiatuko naiz.

Edozein modutan, ilusioa egiten dit Udanako Igoerak. Aurreneko aldia izango da niretzat eta gogotsu nago. Ahalik eta lan txukunena egiten saiatuko naiz, eta jendeak ondo pasa dezala.

Eta urtea borobiltzeko, proba berezi batean parte hartzeko gonbitea jaso duzu, ezta?

Bai. Alcañizeko *Motorland* zirkuitoan 500 kilometroko erresistentzia proban parte hartzeko gonbitea egin didate, puntako Seat Leon batekin. Oraindik detaile batzuk lotu behar ditugu, baina seguruenez han izango naiz azaroan.



Aitor Aizpurua eta Eros txakurra

Aitor Aizpurua Gipuzkoako txapelduna muestra-txakurren lehiaketan

Maiatzaren 20an Burgoseko Cernegula herrian jokatu zen Gipuzkoako Muestra-Txakurren txapelketa irabazi du Aitor Aizpurua, *Or de Iparra-girre* txakurrarekin, lau urteko *Pointer* ingelesa. Muestra edo erakus-txakurren modalitatean txakurrak ahalik eta azkarren aurkitu behar du epe-rra, eta hegaztia begiz jotzen duenean ehiztariari markatu eta gelditu geratu behar du honek tiroa jo arte. Ez da hegaztia hiltzen; bilatze lana saritzen da, ez piezak ekartzea. Bikoteka jokatzen dira kanporaketak, eta azkarren aurkitzen duenak egiten du aurrera. Bigarren urtez jarraian irabazi du txapelketa ehiztari oñatiarrak.

Korpuseko plater tiraketa jokatu da ekainaren 3an

25 plateretara jokatu da Txopekuako tiro zelaian, Pago Uso elkarteak antolatuta. Goizeko 10:30etan hasi eta arratsaldeko 17:30etan amaituko da. Eguerdian (13:30-15:30) bazkaltzeko etenaldia egingo da. Izen ematea: 35€ (platerak barne). Lehen 17 sailkatuentzat egongo da diru-saria,

Oñati-Ataun, Herriarteko pilota txapelketako Final 1/4etan

Zestoa kanporatu ondoren, Ataun izango da oñatiarren aurkaria final 1/4etan. Ostiral honetan jokatu dira joaneak Zubikoan, gaueko 10etan hasita.

Oñatiarrak Aizkorriko maratoian

Asier Alonso izan zen azkarren oñatiarren artean Aizkorriko maratoian. Alonso 47. sailkatu zen 04:50:30ko denborarekin. Atzerago, Iokin Garai (04:57:49) eta Saioa Arkonada (05:36:37) hellmugaratu ziren. Kilometro bertikaleko proban Joseba Molinero (00:44:20) eta Maite Zabaleta (00:54:42) izan ziren lehen oñatiarrak.

10 km.ko lasterketa jokatu da berriz ere Korpus bezperan

Urte bateko etenaldiaren ondoren, aurtur berriro jokatu da 10km.-ko lasterketa Korpus bezperan, Antxintxiketan kirol elkrateak antolatuta. Euskadiko gizonezko atletarik onenak izango dira bertan. Arratsaldeko 19:00etan herriko plazan.

Olakuako txirrindulari proba

Ekainaren 11n, igandea (16:00) XXXI. Olakua Saria jokatu da kadete mailan. Bertan izango dira Aloña Mendi-Ulma taldeko txirrindulariak, Ander Blazquez buru dutela. Orain arte bost podium egin ditu Anderrek; ea etxean irabazten duen.

Arkauz Euskadiko azpitxapeldun distantzia luzeko triatloian

Atxintxika Triatloia taldean ari den Iker Arkauz oñatiarra bigarren sailkatu zen maiatzaren 22an Bilbon jokatu zen distantzia luzeko (1,5km/90km/21km) triatloian, 4:42:26ko denborarekin, 23 urtez azpikoaren bigarrena izan zelarik.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Pinotxo

hariekin lotu gabe



Broadway estiloko musikala

GOGOAN HARTZEKOAK

EMANALDIAK

Hiru emanaldi izango dira Zubikoa pilotalekuan: ekainak 16, ostirala 18:30) eta ekainak 17, larunbata (11:30 eta 18:30).

SARRERAK

Txokolateixan edo www.ganbara.sacatuentrada.es webgunean eros daitezke 15 eurotan.

AKTOREAK

33 aktore (Ganbara Txiki abesbatzeko 30 neska-mutil eta 3 nagusi) eta 80 pertsonaia ikusiko ditugu oholtza gainean.

IKUSKIZUNA

Bi ordu eta erdiko ikuskizuna da. Carlo Collodiren *Pinotxo* ipuin klasikoaren moldaketa, euskaraz. Sei eskenatoki, karakterizio bikaina, argi efektu ikusgarriak, kanta ederrak... Broadwaykoen tankerako musikal bikaina.

GANBARA TXIKI ABESBATZAK 'Pinotxo, hariekin lotu gabe' musikala taularatuko du ekainaren 16 eta 17an, "ikusleak harrituta utziko dituen ikuskizuna" Aitor Biain zuzendariaren esanetan.

Musikal ikusgarria izango da. Broadway estilokoa. Ganbara faktoriak orain arte sortu duen ikuskizunik handiena. Orain dela bi urteko 'Altxorraren Uhartea' ere ikusgarria izan zen, baina 'Pinotxo' haratago doa, zentzu guztietan, Biain zuzendariak azaldu digunez. "Sei eskenatoki ezberdin prestatu ditugu, aktoreen karakterizazioa (jantziak, makillajea, orrazkera...) oso landuta dago, argiztapena ikusgarria izango da, efektu bereziak sortuko ditugu ziklorama baten bidez... Oso koloretsua eta inpaktantea aterako da. Pinotxorena, berez, istorio triste samarra da, baina guk kolorez eta magiaz jantzi dugu. Aktoreen aldetik ere lan handiagoa eskatzen du obra honek; pertsonai gehiagok abesten dute bakarka, eta hori ere erronka handia da".

Azpiramarratu behar da, gainea, etxean bertan eta euskaraz sortutako musikala dela. "Zoriturrez, era honetako material oso gutxi dago euskaraz" dio Biainek. "Guk, Maria Donelly eta Geroge Strid-ek

egindako moldaketa hartu genuen oinarri bezala, baina hura ordubeteko istorioa zen, 8 abestirekin, eta guk bi ordu eta erdiko ikuskizuna bilakatu dugu, 20 abestirekin, eta dena euskaraz. Eta alde horretatik uste dut ekarpen inportantea egiten diogula euskarari ere".

Bi urte luze daramate lanean. Ia urtebete gidoia, testuak eta abestiak prestatzen, eta beste hainbeste ikuskizuna atontzen. Produkzio lanean (eskenatokiak, atrezzoak, jantziak...) 40 bat lagunekoa taldea ari da, guraso eta laguntzaileen artean. Lan handia dago ikuskizun honen atzean, eta, beraz, Biainek animatu egin nahi ditu herritarrak musikala ikustera. Familia guztiari zuzendutako ikuskizuna da, eta uste dut asko disfrutatuko duela jendeak.. Musikalak (kantuak, antzerkia...) gusatzen zaion jendearentzat perfektua da".

Aforoarekin arazorik egon ez dadin, hiru emanaldi eskainiko dituzte: ekainaren 16an ostirala (18:30), eta 17an, larunbata (11:30 eta 18:30). Dena den, sarreren erdiak baino gehiago salduta daude jada, eta, beraz, zenbat eta lehenago eskuratu, hobe. www.ganbara.sacatuentrada.es webgunean eta Txokolateixan eskura daitezke sarrerak.

"Ikusleak harrituta utziko ditu ikuskizunak"



Aitor Biain / Zuzendaria



'Haika mutil' abestiaren moldaketa egin du Osunak

Aitor Osunak Laboaren *Haika Mutil* abestiaren bertsioa egin du, eta Arantzazuko irudiekin osatutako bideo-klipa ere plazaratu du *Youtuben*. Euskaraz abesten grabatu duen aurreneko kanta da. Gustuko du Laboa eta, bereziki, kanta hau, eta bertsio desberdina egin nahi izan du, 'melodikoa-goa, intentsoagoa, oso nirea' dio musikariak.

'Itzalen mundua', Iker Martinezen bakarkako lehen diskoa

Ekainaren 16an aurkeztuko du Ona tabernan (19:30)

Iker Martinez de Zuazok (*Latzen, Potemkin, Lenao*) bakarkako bere lehen diskoa (*Itzalen mundua*) grabatu du., eta ekainaren 9tik aurrera eskuratu ahal izango da Ona eta Boga tabernetan, 5 eurotan.

Gitarra akustikoa eta ahotsa ardatz dituen sei abestiz osatutako diskoa da. Kantu melodikoak dira, pop, rock lasaia eta country ukituak dituztenak. *Ryan Adams, The Jayhawks, Bruce Springsteen, Wilco, REM* edo *Lucinda Williams* bezalako musikarien eragina sumatzen da. Hausturaren eta berriz hastearren beharraz hitz egiten dute abestiek.

Negu partean Elizondon egindako egonaldietan konposatu zituen kantak, eta Iñaki Zubia oñatiarraren eskutik grabatu ditu (bateriak Kaki Arkarazorekin).

Lan pertsonala izan arren, kolaborazio asko batu ditu, hala nola: Antton Telleria, perkusioa eta bateria; Arantzazu Saiz, pianoa; Iñigo Ugarte, gitarra; Iraia Aizpuru, biolina; eta Ander Etxaniz, baxua. Gainera, Iñigo Ibarrondok, Iñigo Arrazolak eta Lide Hernandok ahotsak sartu dituzte. Zuzenekoan bakarka aritzeko asmoa du. Ekainaren 16an ikusiko dugu Ona tabenan.



Kontzeju | e3 | petik

SAN MARTIN GUNEAN

Igeltserotza fasean!

Informazioa: **689 420 761**

egaralur
Construcciones | Eraikuntza Lanak

AGENDA

06

EKAINA



HITZALDIAK

> EKAINAK 5 / 17:30

'PERSONAS TÓXICAS'

Pake Lekuk antolatuta. BiziPoz programako Eider Etxeberria eta Beatriz Santamaria izango dira hizlariak. **Pake Lekun.**

> EKAINAK 28 / 19:00

OÑATIKO NEKAZARITZA ESKOLA (1851-1869)

Artixa kultur elkarteak antolatuta, historia eta antropologia gaietan aditua den Pedro Berriochoak (Urretxu, 1958) hitzaldia emango du XIX. gizaldian Oñatin egon zen nekazaritza eskola, eta garai hartako bizimoduari buruz. Oñatiko historiaz gehiago jakiteko aukera ona.

TAILERRAK

> EKAINAK 10 / 18:00

'CO-ESCUCHA' TAILERRA

BiziPoz programatik sortutako Co-escucha taldeak ekainaren 10ean egingo du hurrengo saioa (18:00-20:00). 'Poza' izango da mintzagaia. Herriar guztiei irekia, doan. **Eltzian.**

TERESA DIAZEN

Pintura erakusketa

> EKAINAK 14-28, Kultur etxean, 18:00-20:00

Teresa Diaz oñatiarraren pintura eta marrazkiak egongo dira ikusgai kultur etxean ekainaren 14tik 28ra. Gasteizen egin ditu bere ikasketak Marina Gomezen eskutik, eta bertako Arte eta Ofizio Eskolan ere bai. Ikasitakoa partekatzea gustatzen zaio Teresari, eta, hala, astero Pake Lekuko talde bati ematen dizkio eskolak. Erakusketa honetan teknika ezberdinez (olioa, pastela, akuarela, ikatz ziria, tinta eta lejia...) egindako lanak ikusiko ditugu, eta motibo aldetik ere oso ugariak: bodegoiak, ondar industrialez osatutako paisaiak, monumentuak, erretratoak, biluziak...

MUSIKA

> EKAINAK 3 / 20:00

VIVA BELGRADO + HERSTURA



Lasterbidean egitarauaren baitan, 'Viva Belgrado' post-rock talde andaluziarrak disko berria aurkeztuko du. Gainera Oñatiko Herstura taldeak 'Metamorfobia' lan berria aurkeztuko du. **Gaztetxean**

> EKAINAK 15 / 19:00

'EGUR-HAIZE TALDEA'

Musika eskolako Egur eta Haize taldearen kontzertua. **Portu plazan.**

> EKAINAK 16 / 22:30

MAIDER ZABALEGI



Alaitz Telletxearekin batera egindako 20 urteko ibilbide arrakastatsua atzean utzita, bakarkako bere lehen diskoa ('Zuei') aurkeztuko du Maider Zabalegi musikagile oiartzuar-rrak. Sarrera: 8€. **Gaztelekuan.**

> EKAINAK 21 / 18:30

MUSIKA ESKOLA

Musika eskolaren ikasturte amaierako kontzertua eta dantza saioa. **Foruen plazan.**

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



MUSIKA

> **EKAINAK 30 / 22:00**

GANBARA ABESBATZA.

Kultura sailak antolatzen duen 'Kalean' egitarauaren barruan 'Udako gauak' kontzertua Ganbara Abesbatzaren eskutik. Unibertsitate atarian.

> **UZTAILAK 5 / 19:00**

'KINTSUKOROI' Maria Rivero 'Kalean' egitarauaren baitan Maria Rivero Balmasedako musikagileak 'Kintsukoroi' izeneko bere proiektua aurkeztuko du. Lazarragako lorategian.

BILERA IREKIAK

> **EKAINAK 7 ETA 14 / 19:30**

ANTIXENA GAZTETXEAN

Ekainaren 7an jorratuko den gaia: 'Udan gatzetxean zer?'. Uda parterako egitaraua osatzeko proposamenak jasotzea da helburua. Ekainaren 14ko gaia berriz, hauxe: 'Antixenak 5 urte. Nola ospatuko dugu?'. Urteurrena modu berezian ospatzeko ideiak mahai gaineratuko dira

TXIMELETEN INGURUKO IKASTAROA

> **UZTAILAK 1 ETA 2**

Oñatiko Natur Eskolak antolatuta, tximeleten inguruko ikastaroa (identifikazioa, biologia, ekologia...) egingo da uztailaren 1 eta 2an, Zerhyntia elkartearen eskutik. Dohainik izango da. Uztailaren 1ean (10:30) teoria landuko da natur eskolan; 17:00en irteera egingo da, tximeletak harrapatzea, eta 22:30etan gaueko tximeletak ikusteko irteera egingo da. Uztailaren 2an (igandea) Aizkorri ingurura joango dira, mehatxatuta dagoen *apolo* tximeleta bila. *Parnassius apolo* (goiko argazkikoa) 2017an urteko tximeleta izendatua, Aizkorriko mendikate inguruan aurkitzen da.

ELKAR HEZI EGUNA / EKAINAK 24

Elkar Hezi osatzen duten langile, irakasle, ikasle eta familiek ikasurte amaierako jaia ospatuko dute. Goizean zehar hainbat tailer izango dituzte: zirkoa, bizikleta konponketak, kantuen letrak sortzen, eskulanak.... Gainera, LHko zelaian puzgarriak, xaboi ponpa erraldioak eta globoflexia ere egongo da. Bazkaria Zubikoa kiroldegian egingo dute, eta ondoren askotariko saioak izango dira: kontzertuak, dantzaldia, Gauargi Dj-ren saioa... Ohi bezala, Batxi-2ko ikasleak omenduko dituzte, orlak banatuz.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Musika liburua

"Ez dok hiru. Euskal Musika."



Liburua

"La vida del pastor"



Diskoa

"Pollinator. Blondie."



DVD

"La la land. Damien Chazelle"



DVD

"Comancheria"



Gazte literatura

"¿Quién mató a Alex?"

MERKATU TXIKIA

> **BOE(VPO) SALGAI UGARKALDEN** + garajea + trastelekua. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta bi terraza. 3. pisua. Bista ederrak. Bizitzera sartzeko moduan. Igogailua bai. Bakarrik 8 urte dauzka. Galdetu konpromiso barik. 687726229

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Ekainak 7, 8, 16, 17, 18, 26 eta 27. Uztailak 5 eta 6..

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Ekainak 9, 10, 11, 19, 20, 28 eta 29. Uztailak 7, 8 eta 9.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Ekainak 2, 3, 4, 12, 13, 21, 22 eta 30. Uztailak 1 eta 2.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Ekainak 5, 6, 14, 15, 23, 24 eta 25. Uztailak 3 eta 4.

Argi pultatu bidezko fotodepilazioa (IPL)

Depilazio baurkioneko sistemak, modak eta berrizaleak

Fotodepilazioa 30€/zona eta sesioko

Gure SUN&SAFE teknologian udan ere fotodepilatu

Olakua 1

943716713

onati@nomasvello.com

www.nomasvello.es

Kale Zaharra (IV)

Alboko kaleak eta beste

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Saiatu gara aurreko hiletako artikuluetan Kale Zahar klasisikoaren inguruan egituratutako auzune, albo-kale eta kantoiei buruzko argibide batzuk ematen. Mende askotako historia eta garapena egon da tartean eta ez da erraza orrialde gutxitan bilakaera osoa argi eta garbi azaltzea. Gaurkoan kaleen izenei buruzko eta albo-kale batzuen gaineko xehetasunak eskainiko dizkizuegu.

KALE-IZENDEGIA

Aldez aurretik honako hau adierazi beharrean gaude: kale, plaza eta enparauei santu, errege, politiko, idazle eta pertsona ospetsuen izenak ipintzea ez da gure artean, oro har, ohitura hain zaharra izan; gehienetan, XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako kontuak dira horiek.

- **Rua Vieja** (Kale Zaharra) izenarekin ez ezik, luzaroan auzo-ka ere ezagutu izan da behealdeko eremu hori: **San Migel** (goiko partea) **San Anton** (erdikoa) eta **Callezarra** (behekoa) deitu dira horko kale-zati batzuk, orain hurrengo batean esaten genuenez.

- Aldaketa garrantzitsuak 1905ean etorri ziren: erdiko kaleari **Juan Carlos Alzaa** izena ezarri zitzaion; eskuinekoari **San Anton**; eta ezkerrekoari **Calle del Colegio / Ikasola kalea** (sic); horrelaxe dator eskola hitzaren euskarazko ordaina Manuel Larramendiren hiztegian.

- Zarateko etxearen aurrealdea **Berdura-plazatxo** moduan ezagutzen zen XX.aren hasieran, baina 1913an **Ramon Maria Lili** politikoaren izen-deituraz bataiatu zuten; trantsizio-garaian orain daukan izena hartu zuen: **Maiatzaren 1a plaza**. Zaratekotik goranzko aldapa, berriz, ez da aspalditxoan San Anton kalea, **Zumeltzegi Torrea** kalea baino.

- Zazpibidetatik unibertsitate eta lehengo tren-geltokiraino doan kalea **Avenida de los Mártires de la Tradición** izendatu zuten 1939an gerrako irabazleek; gerora **Avenida de la Universidad Vasca / Unibertsitate Etorbidea** bihurtu da.

- **Ikasola kalea / Calle del Colegio Aita Madina** kalea dugu ia azken berrogei urtetan. Eta honen erdi ingurutik, institutu eta unibertsitate ostetik, errekaraino doan zatiari **Pio Mortara** kalea deritzo orain.



San Anton kalea 1950 aldera. Gaiñena, Lobera, Txaiñena, eta Larrastegikua etxeak.

- **Damian Lizaaur** arkitektoak ere, XX. gizaldiaren lehen erdialdean Oñatiko etxegintza eta hirigintzan hainbeste ekarpen garrantzitsu egin ondoren, etorbide baten izena bereganatu zuen 1960ko hamarraldian, Kale Zaharretik tren-geltokira (postetxera) doan kale zabala, alegia.

- Aurrekoaren inguruan dago **Olaiturri** ere. Ez da kalea, ezta plaza ere. Erdi Aroko eta askoz geroagoko izkribuetan ere **Oraiturri** legez azaltzen zaigu. Etimologia interesgarria dago hitz horren azpian. Azkenaldi honetan Olaiturriren eremua zabaldu egun dela esan daiteke.

- Kale Zaharreko behealdean **Kanpantxo** (*Kanpontxo* sasoi batean) izen tradizionala gaur egun ofiziala da.

- **Ibarrako zubiak** ere badu bere izendapena. Kontuan izatekoa: orain ez dugu oñatieraz *ibarra* berba erabiltzen, baina due-la gutxira arte ezaguna zen hemen, nonbait.

IZENEN ZERGATIA

Gu **geu**, kale, plaza eta auzo berriei izena jartzeko politika erabakitzerakoan, **ez gara** gertakari, santu, apezpiku, jeneral, alkate, politiko, idazle, kirolari edo bestelako **pertsonaia batena** erabiltzearen aldekoak. Salbuespenak salbuespen. Askoz **jatorragoa** eta naturalagoa **dela uste dugu** aspaldidanik **jendeak eman dion izendapenari eustea**, herri-toponimoari, alegia. Oñatin, beste leku askotan bezala, denetik daukagu: toki-izen batzuk dantzan ibili dira, egoera eta gorabehera politikoen arabera. Beste kasu batzuetan izendapen herrikoia mantendu edo berreskuratu egin da. Bada hor aztertze gaia.

Orain dagokigunari helduz, goraxeago azaldu zaizkigun izen batzuen azalpen labur batzuk ematen saiatuko gatzazkizue. **Juan Carlos Alzaa Larrañaga** (1821-1896) alkateari eta **Damian**

Lizaur Lasa (1885-1956) arkitekto-ari buruz zer bait esan genizuen aurreko artikuluetan. Edonola ere, azpimarratu nahi genituzke J. C. Alzaaren alkate-denboran eta bere ekimenez Oñatin jarri ziren **iturri monumental ederrak** (1880-1882). Horien artean, Kale Zahar eta inguruetakoa: bata, hasieran Zazpibidea eta ondoan eta orain Zarateko etxearen aurrean, **emakume urketari liraina** irudikatzen duena; bigarrena, San Anton plazatxoan ikus dezakegun iturri ederra (**bi fauno arrainari eusten**), inguruari nortasun berezia ematen diona; eta azkena, *Kanpantxoko iturririx*a, hain monumentala izan barik, Kale Zaharreko ertz horretan ikur dena.

Damian Lizaurrek herri guztian dozenaka arkitektura-lan zuzendu eta bideratu zituen. Kale Zahar eta inguruetan ere obra ugari bere ardurapean burutu ziren: **unibertsitatearen berrikuntza sakona**, **abadetxea**, **agustinoetako kanpandorre berria**, orain Idigoras altzari-denda dagoen eraikina, Uriarte-Zuluataneko etxearen aurrealdea, San Migel kooperatiba zena eta abar.

Adierazi berri dugu kale-izen batzuk aldatu egin direla historian zehar. Badira pare bat Oñatiko agustino laterandarrekin zerikusi zuzena dutenak. Pio Mortara eta Aita Madina kaleak, hain zuzen ere. Bata nahiz bestea, agustinoen komentu eta elizaren inguruan aurkitzen dira:

• **Frantzisko Madina Igartzabal** (1907-1972) oñatiarra, Zubillagako Txipitxaille baserriko semea, musikari ospetsua izan zen Euskal Herrian, Argentinan eta Estatu Batuetan; gizon ikaslea, idazle fina, euskaltzale sutsua, askotariko musika-lanak gauzatu zituen: poemak, rapsodiak, mezak, erlijio-kantak, gitarrak, harpa edo organorako piezak, zortzikoteentzako euskal abestiak; harreman oso estua izan zuen Oñatiko *Irrintzi* izeneko otxotearekin; **kultura-ondare oparoa eta aberatsa utzi zigun laterandar honek.**



Oraingo A. Madina kalea 1960ko hamarkadan. Ospitalea bota eta institutu berria jaso aurretik..

• **Pio Mortara Levi** (1851-1940), Bolonian jaio zen Edgar-do izenaz eta Liejan hil. **Gure herrira 1884an heldu ziren lau kanonigo laterandarretako bat; lan asko egin zuen batera eta bestera diru bila mugituz, hemengo agustinoen komentu-ikas-tetxea eta eliza eraiki ahal izateko; denbora laburrean euskaraz ikasi eta sermoiak gure hizkuntzan egitea eta poemak moldatzea lortu zuen.** Hona etorri aurretik ere oso famatua zen, bere haurtzaroko historia korapilatsuak bazterrek astindu baitzituen: familia judutar batean sortu zen, baina umezainak isilean bataiatu zuen; hori dela, bahitu egin zuten Pio IX. aita santu gatazkatsua garaian, eta Vatikanon hazi eta apaiz laterandar egin zen, izena eta izana aldatuz. **Laster, beharbada, are ospetsuago bihurtuko da, Steven Spielberg zinemagile ezagunaren hurrengo filmak Mortararen historia kontatuko baitu, dirudienez.**

IRRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Bertsopapela

ZAHARTZAROKO AJIAK

Gizon nekazarixa
laister ohi da zahartu,
tankera itsusixa
gorputzak hartu,
besuak bihurritu,
belaunak okertu,
sudurra dindirritu,
pausua baldartu,
bizkarra gaillurtu,
burua makurtu,
mosua kuskurtu,
bistia laburtu,
belarrixak gortu,
agua bihurtu,
zentzuna agortu,
adimena lotu,
kaskarra lelotu,



okotza kakotu,
samia igartu,
azala ximurtu,
koipakixak urtu,
hazurak agertu,
hotzakin bilddurtu,
eskuak gogortu,
beruak izarditu
biguna elkortu,
gogorra nanotu,
haizia samurtu,
ohitturaz zabartu,
laguntza bihartu,
bizitten aspertu:
goittik deittutakuan
fateko gertu.

Graziano Anduaga 'Gesaltzako aittona'

Oharra: Bertso hontaz gehixago jakittek, jo Bittor Madinak egin eben kolaboraziñora.
Kontzejupetik 158. zenb. (5. or.), 2007-01ekua.

Zein auzotan dagoz *-ola* atzizkixagaz osotutako baserri eta leku-izen honeik?

- | | |
|-----------------------|----------------------------------|
| 1. Madalena-Korostola | A. Urrexolan |
| 2. Auntzola | B. Arantzazun |
| 3. Baltzola | C. Olabarrietan, Legazpiko mugan |
| 4. Arrola | D. Olabarrietan |
| 5. Imittola | E. Murgixan |
| 6. Aldaola | F. Arantzazun |
| 7. Okola | G. Olabarrietan |
| 8. Bildotsola | H. Olabarrietan |
| 9. Arrazola | I. Arantzazun |
| 10. Arratola | J. Arantzazun |

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|---------------------|---------------------------------------|
| 1. Apartau | A. Artatu, kasu egin. |
| 2. Atendiu | B. 1. Aukeratu 2. Banandu |
| 3. Labandu | C. Sendatu |
| 4. Geratu | D. Lortu, eskuratu |
| 5. Oratu / Obatu | E. 1. Gogoratu 2. Konturatu |
| 6. Osatu | F. Gelditu |
| 7. Akordau | G. Irristatu |
| 8. Zuzendu | H. Heldu |
| 9. Osotu | I. Txiribuelta egin, itzulipurdi egin |
| 10. Atxilpurdi egin | J. Falta zaiona jarri, burutu |

EUSKERAZ EGOGI

Zenbat da? *Lau hogeita bost

Numeruak esaterunzkuan, numero osua eta dezimalaren artian "**eta**" konjuziñua sartu bihar da derrigorrez. Orduan 4,25 numerua, 'lau **eta** hogeita bost' eskribiuko dugu, nahiz eta [lau ta hogetabost] esango dogun. Bardin-bardin numero guztiakin. Adibidez:

8,40 = zortzi **eta** berrogei.
16,39 = hamasei **eta** hogeita hemeretzi.
27,23 = hogeita zazpi **eta** hogeita hiru.
56,84 = berrogeita hamasei **eta** laurogeita lau.

-Zein auzotan dagoz *-ola* atzizkixagaz osotutako baserri eta leku-izen honeik?
-Billatu berba honein sinonimuak
1b, 2a, 3g, 4f, 5h, 6c, 7e, 8d, 9j, 10i

ERANTZUNAK



Orain dala 65-60 urteko pelotari oñatiarrak

Aloña Mendiko pelota-saillak aurtan 50. urteurrena ospaketan dauela ondotoxo dakizue askok honezkero. Izan be, urtian zihar hainbat partidu, jaialdi eta bestelako ekintza antolaketan dihardue. Hurrengo hillabetetarako be gauza gehixago ei dakoi pentsauta. Guk, orrialde honetatik, euren lanak eta ahalegiñak aittatu eta eskertu gura gittuke.

Horretarako, Aloña Mendi kirol alkarteko pelota-sail hori sortu baiño lehentxuago **guk ikusi geben pelota-girua gogoratuko dotsuegu**. Plazako frontoi zaharrian makiñatxo bat ordu pasautakuak gara mutikotan: batian pelotan, hurrengo bizikletan, kartetan be bai. Pelotarako zaletasuna orduan sortu xakun. **Uda partian**, ikaslion bakaziño luzietan, **seirak aldera agerketan ziran mutil-gizon helduaguak**, euren lanleketan jardun ondoren, **guretzat benetako pelotarixak ziranak**. Eta, gehixenetan, zaharraguok ezkin-ttuein beste barik kantxatik uxaketan; alkarrekin hamar edo hamabost minutu **fueraka** jokatu eta gero, gustura jareten gosten gaztetxuok maixuairi pelotaleku osua. **Giro oso politta egoten zan**.

Orduan ezagutu gittuan, bestiak beste, gaurko argazkittan agiri diran pelotari txantxiuar batzuk be. Esate baterako, **Santos Salas** eta **Karlos Aia**stui. Santos Tetuan auzuan bizi zan, gar eguneko Zubibarri kalia; Karlos, berriz, San Juan kaleko Otsuaneke kale-baserrixan. Argazkixan ezkerrekua **Otsua** da, ule illunarekin, eta Salas, ule zuriduna, eskumakua. Bata zein bestia inportantia Oñatiko pelotaren historixan. Honeik baiño gaztiaguak ziran hurrengo fotografixakuak: **Manolo Arregi**, Patrue kalekua, eta **Eufrazio Belategi**, Olabarrieta auzoko Tiruena baserrikua. Sasue haretan Txantxiku Txoko alkartia arduraketan zan pelotakontuekin.

Eufraziok eta Manolok luzaruan ahaztu ezkeben **pelota-desafixua egin euen alkarrekin**. Etzan bakarra izan orduan, baiña bai famauena, akaso. **Plazako pelotaleku horretan jokatu zan 1959ko mariatzaren 1ian**. Atzetik, zirikatzaile, bi kuadrilla bero eukain: olabartarrak eta kaletarrak. **Kondiziñuak Kale Barriko Aizkorri tabernan, Torrenian**, ifiñi eta argittu zittuain. **Argazkixaxa partidua hasi aurretikua da**: adiskide eta irribarrez ikusten dira, alkarri eskua emuten. Gero, baiña, **gorabeherarik etzan falta izan**; partidua oso gogorra eta peliaua jokatu ondoren, eztabaida eta guzti amaittu zan, juezen erabagixak tarteko. **Azkenian Belategi geratu zan irabazle, 22-19**.

J. E.

Karlos eta Santos argazkixa Andres Arlanzonek atara eben; guri Karlos *Otsuaren* familixiak eskuratu dosku. Manolo eta Eufraziorena, berriz, Jose Luis Plazaolarena da; eta guri Manolo Arregiren familixiaren bittartez aillergau xaku. Argibide batzuk Anjel Elgerok eta Esteban Ugartek samurtu doskue. Milla esker danoiri!

AUTONOMOA naiz eta...

> Gaixotzen banaiz...

Gizarte Segurantzaren hileroko ordaintzen dudanakarekin nahikoa da?



> Istripuren bat badaukat...

Nire aseguru polizak babestuko nau?



ARGITU ITZAZU ZALANTZA GUZTIAK.

AUTONOMOENTZAT
AHOLKULARITZA
PERTSONALIZATUA
ESKANTZEN DIZUGU

943 08 90 06

Bisita gaitzazu konpromisorik gabe